



INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA – IAE

EUSKADIKO 2021-2027 EGEF PROGRAMAREN INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA ESKATZEKO

Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza

(2022ko apirileko programaren zirriborroari lotuta)

TXOSTENAREN EGILEA/ARDURADUNA:

IKEI RESEARCH & CONSULTANCY
JOSE MIGUEL PEREZ – IKEIko kidea - NAN: 78865756K
Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua

BUKAERA-DATA: 2022ko apirila

AURKIBIDEA

1. **OBJETO Y ESTRUCTURA DEL DOCUMENTO**..... ¡Error! Marcador no definido.
2. **DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA** ¡Error! Marcador no definido.
 - 2.1 Marco y objetivos de la programación..... ¡Error! Marcador no definido.
 - 2.2 Alcance, contenido y desarrollo del Programa..... ¡Error! Marcador no definido.
 - 2.3 Alternativas del Programa..... ¡Error! Marcador no definido.
3. **CARACTERIZACIÓN DEL MEDIO AMBIENTE**..... ¡Error! Marcador no definido.
 - 3.1 Descripción de la situación ambiental..... ¡Error! Marcador no definido.
 - 3.2 Síntesis: aspectos ambientales relevantes 29
4. **EFFECTOS AMBIENTALES**..... ¡Error! Marcador no definido.
5. **MEDIDAS PREVENTIVAS, CORRECTORAS Y COMPENSATORIAS**¡Error! Marcador no definido.
6. **PROGRAMA DE VIGILANCIA AMBIENTAL** ¡Error! Marcador no definido.
7. **SÍNTESIS AMBIENTAL** ¡Error! Marcador no definido.
8. **RESUMEN NO TÉCNICO** ¡Error! Marcador no definido.

1. DOKUMENTUAREN XEDEA ETA EGITURA

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren (aurrerantzean, EGEF Programa) Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesuaren esparruan, 2021eko abenduaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak (organo sustatzailea/substantiboa) ingurumen-organoari (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza) IAE – Irismeneko dokumentua hasteko eskaera bidali zion, Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin (HDE) batera.

Organo sustatzaileak/substantiboak bidalitako dokumentazioa eta aurretiazko kontsulten erantzunak ikusita, ingurumen-organoak “Irismeneko dokumentua” egin du, zeinaren bidez “Ingurumen Azterketa Estrategikoaren” irismena zehazten baita, eta organo sustatzaile/substantiboari bidali dio.

Horrela, EGEF Programaren Ingurumen Azterketa Estrategikoak erantzuna ematen dio ingurumen-organoak egindako irismeneko dokumentuan ezarritako edukiari. Dokumentu horrek 6. atalean adierazten du Azterketak 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango duela, eta 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko dela, jarraitu beharreko eskema metodologikoa adieraziz.

Testuinguru horretan, EGEF Programaren Ingurumen Azterketa Estrategiko hau egituratzeko, kontuan hartu da ingurumen-organoak bertarako egindako proposamena:

- Proposatutako programaren deskribapena:
 - Programazioaren esparrua eta helburuak
 - Programaren irismena, edukia eta garapena
 - Programaren alternatibak
- Ingurumenaren ezaugarriak:
 - Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - Sintesia: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
- Ingurumen-ondorioak
- Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
- Ingurumena zaintzeko programa
- Ingurumen-sintesia
- Laburpen ez-teknikoa

2. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

2.1 Programazioaren esparrua eta helburuak

2.1.1 Programa zehazteko eta onartzeko esparrua

EGEF 2021-2027ren programazioa Elkartzeko Akordioaren eta programen bidez egituratzen da. Elkartzeko Akordioa 21-27 aldirako dokumentu estrategikoa da, Estatu kide bakoitzak egina, elkartzeko printzipioaren pean, eta bertan jasotzen dira EGEFen, Europako Gizarte Funts Plusaren (EGIF+), Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) eta Bidezko Trantsizioarako Funtsaren (BTF) oinarritzko planteamendua eta inbertsio-lehentasunak.

Programak honako hauek definitzen dituzten plangintza-dokumentuak dira: hautatutako helburu politikoak lortzeko jarduketa-estrategia, helburu espezifikoaren esparruan garatu beharreko ekintza motak eta lortu beharreko emaitzak. Espainian, EGEF 19 eskualde-programen (erkidego eta hiri autonomo bakoitzeko programa bat) eta Espainiako Eskualde anitzeko Programaren bidez antolatuko da.

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programa diagnostikoko lehen fase baten arabera egituratzen da, lehia-posizioaren azterketan eta eskualdeen erronka nagusien identifikazioan oinarrituta, helburu politiko/espezifikoetan. Horri esker, Euskadik datozen urteetarako dituen inbertsio-premia nagusiak jaso ahal izan dira. EGEFen kohesio-politikaren helburuekin —inbertsioari, enpleguari eta hazkundeari dagokienez—, eta klima- eta ingurumen-helburuekin batera, identifikatutako erronkak programaren ildo egituratzaileetan islatzen dira.

Programaren prestaketa fase aurreratuan dago, eta jada lehen zirriborroa ia amaitua du (jarraipen-adierazleen mugarren eta jomugen kuantifikazioaren zain, batez ere). Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak (organo sustatzailea/substantiboa) zirriborro hori modu informalean bidali die Kudeaketa Agintaritzari (Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa) eta Europako Batzordeari, hala badagokio, eurek oharrak egin ditzaten. Horrela, Programa 2022ko ekainean aurkeztuko zaio formalki Europako Batzordeari, eta honek 2022a amaitu baino lehen onartu beharko du.

Lan horiek guztiak elkartze-printzipioaren arabera garatzen dira. Printzipio horrek eskatzen du funtsen kudeaketa-fase guztietan (programak prestatzea, egikaritzea eta ebaluatzea) hainbat esparrutako bazkide garrantzitsuek parte hartzea:

- Administrazioa: eskualdeko, tokiko eta hiriko agintariak eta beste agintari publiko batzuk.
- Ekonomia- eta gizarte-arloetako eragileak.
- Gizarte zibila: GKEak, gizarteratzea, oinarritzko eskubideak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, genero-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko ardura duten erakundeak, eta ingurumen-solaskideak.

Bitartean, etengabe hitz egiten ari dira Kudeaketa Agintaritzarekin (Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa) eta Europako Batzordearekin, Programaren negoziazioen garapena eta onarpena errazteko.

2.1.2 Programaren helburu politikoak

Xedapen Komunen Erregelamenduaren 5. artikuluan, Europako Batzordeak honako bost helburu politiko hauek (aurrerantzean, HP) zehaztu ditu kohesio-politikarako:

- HP1: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa, eraldaketa ekonomiko berritzaile eta adimentsua, eta informazioaren eta komunikazioen teknologiekiko eskualde-mailako konektagarritasuna sustatuz;

- HP2: Europa berdeagoa, karbono baxukoa, zero karbono-emisio garbi eta erresilientea duen ekonomia baterako trantsizioa, energia-trantsizio garbi eta ekitatiboa, inbertsio berde eta urdina, ekonomia zirkularra, klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea, arriskuen prebentzioa eta kudeaketa eta hiri-mugikortasun jasangarria sustatuz;
- HP3: Europa konektatuago bat, mugikortasuna hobetuz;
- HP4: Europa sozialagoa eta inklusiboagoa, gizarte-eskubideen zutabe europarra aplikatuz; eta
- HP5: herritarrengandik hurbilago dagoen Europa, mota guztietako lurraldeen eta tokiko ekimenen garapen integratu eta jasangarria sustatuz.

EGEF Erregelamenduaren 2. artikulua arabera, helburu horiek lagundu beharko dute “Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzeko helburu orokorra lortzen”, eta “Batasuneko eskualdeen garapen-mailen arteko desberdintasunak murrizten eta egoera ahulenean dauden eskualdeen atzerapena murrizten. Horretarako, eskualdeen egitura-doikuntzan parte hartuko dute, baldin eta eskualdeen garapena atzeratua badago eta industria-eskualdeen birmoldaketa gainbeheran badago, besteak beste, ingurumen-erronkei aurre egiteko eta ingurumen-garapen jasangarria sustatzeko”.

Testuinguru horretan, bai arauzko betekizunetatik bai programaziorako ezarritako elkartzeko-prozesutik abiatuta, EGEF Programa lehenengo bi HPetan kontzentratuko da, hots:

- **HP1: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa;** horretarako eraldaketa ekonomiko berritzaile eta adimentsua, eta informazioaren eta komunikazioen teknologiekiko eskualde-mailako konektagarritasuna sustatuz;
- **HP2: Europa berdeago bat,** karbono baxukoa, zero karbono-emisio garbi eta erresilientea duen ekonomia baterako trantsizioan, energia-trantsizio garbi eta ekitatiboa, inbertsio berde eta urdina, ekonomia zirkularra, klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea, arriskuen prebentzioa eta kudeaketa eta hiri-mugikortasun jasangarria sustatuz;

2.1.3 Programaren klima- eta biodibertsitate-helburuak

Klima-helburuak

Xedapen Komunen Erregelamenduak 6. artikuluan ezartzen duenez, EBren EGEF laguntza osoak % 30eko ekarpena egin behar du klima-helburuak lortzeko, eta baldintza hori nahitaez bete behar dute EGEFekin batera finantzatutako programa guztiek, Euskadiko EGEF Programa barne. Ekarpene hori kalkulatzeko, 2014-2020 aldian erabilitako metodologiaren antzekoa erabiliko da, esku-hartze esparru bakoitzari klima-helburuei laguntzeko haztapen espezifiko bat esleitzean oinarrituta.

Programa bakoitzaren ekarpena honela kalkulatu da:

- Programan jasotako ekintza mota bakoitza esku-hartze esparruren batean —Xedapen Komunen Erregelamenduaren I. eranskineko 1. Koadroan jasotakoak— sailkatu beharko da.
- Xedapen Komunen Erregelamenduaren I. Eranskineko 1. Koadroak koefiziente bat —% 0, % 40 edo % 100 izan daiteke— esleitzen dio esku-hartze esparru bakoitzari klima-aldaketaekin lotutako helburuetarako ekarpena kalkulatzeko.
- Klima-aldaketa egiten zaion ekarpena kalkulatzeko, ekintza motari esleitutako EGEF laguntza bider dagokion koefizientea egingo da.

Biodibertsitate-helburuak

Xedapen Komunen Erregelamenduak, 11. kontuan hartuzkoan, ezartzen du funtsek biodibertsitatearen galerari aurre egiten lagundu behar dutela, helburu orokor hau erdietsiz: urte anitzeko finantza-esparruan urteko gastuaren % 7,5 bideratzea 2024ko biodibertsitate-helburuetara, eta 2026an eta 2027an % 10.

14-20 aldian, Espainiak EGEFen bidez % 2,8ko ekarpena egin zion helburu horri, eta Europako Batzordeak 2021-2027rako helburutzat % 4ra iristea ezarri du. Ehuneko hori programa guztietan lortu beharko da, baita Euskadiko EGEF Programan ere.

Kalkulu-metodologia, kasu honetan, klima-helburuei laguntzeko ezarritakoaren antzekoa da. Hala ere, biodibertsitateari egindako ekarpenen ehunekoak ez daude jasota Xedapen Komunen Erregelamenduan, eta Europako Batzordeak a posteriori definitu ditu. Hurrengo taulak Europako Batzordearen proposamena erakusten du (oraindik formalki onartzeke dago).

1. taula. Biodibertsitateari laguntzeko proposamena, esku-hartze eremuaren arabera.

Esku-hartze esparruaren kodea	Esku-hartze esparruaren izena	Biodibertsitateari egindako ekarpenaren koefizientea
058	Klima-aldaketara egokitzeko neurriak eta klimarekin lotutako arriskuen prebentzioa eta kudeaketa: uholdeak eta lur-jausiak (sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila eta hondamendiak kudeatzeko sistemak, azpiegiturak eta ikuspegi ekosistemikoak barne)	% 40
059	Klima-aldaketara egokitzeko neurriak eta klimarekin lotutako arriskuen prebentzioa eta kudeaketa: suteak (sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila eta hondamendiak kudeatzeko sistemak, azpiegiturak eta ikuspegi ekosistemikoak barne)	% 40
060	Klima-aldaketara egokitzeko neurriak eta klimarekin lotutako arriskuen prebentzioa eta kudeaketa: beste batzuk, adibidez, ekaitzak eta lehorteak (kontzientziazio-ekintzak, babes zibila eta hondamendiak kudeatzeko sistemak, azpiegiturak eta ikuspegi ekosistemikoak barne)	% 40
065	Hondakin-urak biltzea eta tratatzea	% 40
066	Hondakin-urak biltzea eta tratatzea, energia-efizientziako irizpideen arabera	% 40
073	Industrialdeak eta kutsatutako lurak birgaitzea	% 40
074	Industrialdeak eta kutsatutako lurak birgaitzea, efizientzia-irizpideen arabera	% 40
078	Natura 2000ko guneak babestea, leheneratzea eta erabilera jasangarria egitea	% 100
079	Naturaren eta biodibertsitatearen babesa, natura-ondarea eta -baliabideak, azpiegitura berdeak eta urdinak	% 100
080	Karbonoa xurgatzeko eta gordetzeko ahalmen handia duten naturaguneak kontserbatzeko eta leheneratzeko esparruan berotegi-efektuko gasen emisioak murriztera bideratutako beste neurri batzuk, adibidez hodiak berriro hezetuz edo zabortegietako gasak harrapatuz	% 100
167	Natura-ondarea eta turismo ekologikoa babestea, garatzea eta sustatzea, Natura 2000ko guneei dagokienez izan ezik	% 40

DNSH printzipioa betetzea

Gainera, Programan sartutako ekintza mota guztiek Taxonomia Erregelamenduko sei klima- eta ingurumen-helburuei dagokienez kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (aurrerantzean, DNSH, ingelesezko siglak) betetzen ote den ebaluatu beharko dute:

- klima-aldaketa arintzea,
- klima-aldaketara egokitzea,
- ur- eta itsaso-baliabideak erabiltzea eta modu jasangarrian babestea,
- ekonomia zirkularra,
- kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea
- eta biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea

2.1.4 Jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak

Puntu horretan, Printzipio horizontalen Xedapen Komunen Erregelamenduaren 9. artikulua nabarmendu behar da. Artikulu horren puntuan hau ezartzen da: “Funtsen helburuak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 11. artikuluan ezarritako garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin bat etorri bilatuko dira, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak, Parisko Akordioa eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa kontuan hartuta; beraz, garapen jasangarria sustatzeko helburua funtsezko alderdia da EGEF Programa garatzeko faseetan zehar: programazioa, eragiketen hautaketa, kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa.

Ildo horretan, bere helburu politikoak, klima- eta biodibertsitate-helburuak eta DNSH printzipioaren betetze-klausula ikusita, EGEF Programak argi eta garbi du garapen jasangarria sustatzeko helburua, eta, beraz, lerrokatuta dago bai EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoekin, bai irismeneko dokumentuaren 2. atalean adierazitako jasangarritasun-printzipio eta -irizpideekin:

EAE-KO 2020RAKO IV. INGURUMEN ESPARRU-PROGRAMAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

- 1. helburu estrategikoa. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz.
- 2. helburu estrategikoa. Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono gutxiko eta baliabideen erabilera efizientea den baterantz aurrera egitea.
- 3. helburu estrategikoa. Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.
- 4. helburu estrategikoa. Lurraldearen jasangarritasuna areagotzea.
- 5. helburu estrategikoa. Politiken koherentzia bermatzea, ingurumenaren integrazioa areagotuz.
- 6. helburu estrategikoa. Euskadiren nazioarteko proiektzioan eta erantzukizunean laguntzea.

JASANGARRITASUN-PRINTZIPIOAK ETA -IRIZPIDEAK

- Herritarrak babestea ingurumen-presio eta -arriskuen aurrean.
 - Muturreko fenomeno klimatikoen ondorioak (lehorteak, uholdeak...) geldiaraztea.
 - Osasunerako ingurumen-arriskuen monitorizazioa, prebentzioa eta kudeaketa indartzea, ingurumen-informazioko sistemak hobetuta.
 - Azpiegitura berdeak garatzea eta ezartzea, klima-aldaketa arintzen eta horretara egokitzen laguntzeko eta onura ekologiko, ekonomiko eta sozialak ekartzeko, lurraldean natura integratzen duten soluzioen bidez.
- Ingurumena babestea, bere narriadurari aurrea hartzea eta kaltetutako lekuan leheneratzea.
 - Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarritzko bizi-sistemen funtzionamendu egokia ziurtatzea, ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestuz.
 - Natura-ondarearen aniztasun biologikoa eta geologikoa eta ekoizpen-gaitasuna kontserbatzea eta leheneratzea.
 - Natura 2000 guneen arteko konektagarritasun ekologikoa eta Sarearen koherentzia ziurtatzea.
 - Ekosistema naturalak eta ondare geologikoaren eta paisaiaren bariedade, berezitasuna eta edertasuna kontserbazio-egoera onean zaintzea.
 - Aniztasun genetikoaren eta basa-flora eta -faunaren populazioen eta haien habitaten kontserbazio-egoera ona bermatzea.
 - Baliabideak erabiltzea natura-ondarearen aprobetxamendu jasangarria bermatzeko, bereziki, espezieen eta ekosistemen aprobetxamendu jasangarria, haien kontserbazioa, leheneratzea eta hobekuntza, eta biodibertsitatearen galera garbia saihesteko.
 - Arriskuan dauden flora- eta fauna-espezieen eta paisaien berreskurapena sustatzea.
 - Kontserbazio-egoera kaltegarrian dauden ekosistemak leheneratzeko eta kontserbatzeko jarduketak planifikatzea.
 - Habitaten arteko interkonexioko korridore ekologikoak zaintzea eta leheneratzea.
 - Espezie inbaditzaileen aurkako borroka sustatzea, eta espezie inbaditzaileak izatea errazten duten ingurumen-faktoreetan eragitea.
- Baliabideak efizientziaz kudeatzea, ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatuz.
 - Baliabideen kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga- eta birsorkuntza-gaitasuna gaindi ez dezaten lortzea, eta hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabileraren arteko bereizketa erdiestea.
 - Baliabideen erabilera optimizatzea, produktuak, osagaiak eta materialak une oro ahalik eta erabilgarritasun handienarekin txandakatuz, bai ziklo teknikoetan, bai biologikoetan.
 - Artifizializazio-prozesuak eta lurzoruak suntsitzeko erritmoak pixkanaka gutxitzea, baita nekazaritza-lurra babestea ere.
 - Lehendik artifizializatutako lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
 - Kalitatezko uraren eskariari erantzutea, jasangarritasun-, aurrezte- eta efizientzia-irizpideen arabera, emari ekologikoen erregimenekin bateragarri eginez, ur-eskaria kudeatzeko tresnak indartuz.
- Berotegi-efektuko gasak murrizteko neurriak ezartzea.
 - Berotegi-efektuko gasen emisioak atmosferara mugatzea.
 - Karbono-hustubideak handitzea.
 - Energiaren aurrezpena eta efizientzia sustatzea energiaren erabileran eta aurrezpenaren sustapenean.
 - Energiaren erabilerak ingurumenean eta lurraldean dituen eraginak prebenitzea eta mugatzea.

- Airea, ura eta lurra garbi eta osasungarri egotea bermatzea.
- Inguruneetara egindako substantzia arriskutsu eta kutsatzaileen emisioak eta isuriak murriztea.
- Azaleko (ibaiak, estuarioak, kostaldeak, lakuak eta hezeguneak) eta lurpeko eta eremu babestuetako (bainu-eremuak, ur-bilketak, nitratoekiko kalteberak diren eremuak, etab.) ur-masen egoera ona lortzea.
- Arrisku naturalak (uholde-arriskua, higadura, akuiferoen karga) dituzten lurzoruen urbanizazioa geldiaraztea, eta gaitasun agrologiko handikotzat katalogatutako eta babestutako lurzoruen okupazioa moteltzea.
- Baso-azalera autoktonoa mantentzea eta/edo handitzea, horrek airea arazteko, uren erregimen hidrologikorako eta higaduraren kontrolerako dakartzan onurengatik.

Era berean, alderdi hori egiazta daiteke Programan hautatutako inbertsio-ildoak ikusita (2.2 atala), bereziki 2. helburu politikoari buruzkoak (Europa berdeagoa), zeinak ia printzipio horien guztien alderdiren batean eragin positiboa baitute, baita printzipio eta irizpide horiek EGEF Programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketak hautatzeko prozeduretan sartzearen zaintzarekin ere (ikus prebentzio-neurriei buruzko 5. kapitulua).

2.1.5 Bildutako sektore- eta lurralde-planetan aurreikus daitezkeen intzidentziak

EGEF Programak I+G+B, digitalizazioa, energia-efizientzia, arriskuak, ura, biodibertsitatea eta hiri-mugikortasun jasangarria bezalako esparruetan jarduteko espektro handia hartzen du.

Testuinguru horretan, nabarmendu behar da Programa egiteko planteatutako **Programazio Esparru Logikoak** bermatzen duela programan aurreikusitako jarduerak koherenteak izatea Batasuneko, nazioko eta eskualdeko gainerako estrategiekin; izan ere, estrategia horiek funtsezko input bat izan dira Euskadik datozen urteetarako dituen erronka nagusiak —hain zuzen ere Programan sartu beharreko ekintzak zehaztuko dituztenak— identifikatzeko.

Ildo horretan, EGEF Programa bat dator Europako Esparruaren funtsezko erreferentzia nagusiekin, oro har, eta haren kohesio-politikarekin, bereziki, 2021-2030 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuarekin, eta Espainiak Europako Batzordearekin duen Elkartzeko Akordioarekin, baita eskualdeetako estrategia eta planekin ere; horien artean hauek aipatu behar dira besteak beste:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 / RIS3 Euskadi 2030
- Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia (EED 2025)
- 2021-2024 Industriaren Garapen eta Nazioartekotze Plana (IGNP2024)
- 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia (KLIMA 2050 Basque Country)
- Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena eta Basque Green Deal Ekimena
- 2030 Euskal Estrategia Energetikoa
- EAEko 2022-2027 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa eta Uholde-arriskua kudeatzeko planak
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia
- Euskadiko 2021-2027 Lehentasunezko Ekintza Esparrua (LEE)

Horrela, EGEF Programaren helburu espezifikoaren hautaketaren justifikazioa, funtsean, eskualde-plangintza horretan bere eremu guztietan zehaztutako erronketan oinarritzen da, eta, ildo horretan, legeria aplikagarriarekin (7/2021 Legea, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa...) eta arlo bakoitzean ezarritako antolamendu-jarraibideekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) eta Lurralde Planak eta Plan Partzialak...) bat datorrela bermatzen da; azkenean Programan sartuko diren jarduketak Euskal Administrazio Publikoak egingo dituen inbertsioak izango diren testuinguruan.

2.2 Programaren irismena, edukia eta garapena

2.2.1 Programaren lurralde- eta denbora-irismena

EGEF Programaren jarduketarako **lurralde-esparrua** Euskal Autonomia Erkidego osoa da.

Programaren **denbora-eremuak** 2021-2027 programazio-aldiari dagozkion zazpi urteak hartuko ditu, eta N+2 arauak ezartzen dituen jarduketak gauzatzeko marjinarekin luzatuko da. Horrela, 2021eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko gastua diruz lagundu ahal izango da.

2.2.2 Programaren edukia eta alderdi orokorrak

EGEF Programaren edukia Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22.3 artikuluan xedatutakoaren eta V. eranskinean definitutako plantillaren arabera da, eta honako elementu hauen inguruan egituratzen da:

2. taula. Programaren edukia.

1. Programaren estrategia, garapenaren arloko erronka nagusiak eta erantzun estrategikoak 2. Lehentasunak 3. Finantziazio-plana 4. Baldintza mesedegarriak 5. Programaren agintariak 6. Asoziazioa 7. Komunikazioa eta ikusgarritasuna 8. Kostu unitarioen, oroharreko prezioen baturen, tasa finkoen eta kostuei lotu gabeko finantzaketaren erabilera Eranskina. Egutegiarekin aurreikusitako garrantzi estrategikoko eragiketen zerrenda.
--

2.1.5. atalean aurreratu den bezala, programaren estrategia definitzerakoan honako hauek hartzen dira kontuan: Europako Batzordearen 2019ko eta 2020ko Espainiako Herrialde Txostenak, 2019rako eta 2020rako Herrialde Gomendio Espezifikoak Espainiako, Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (PNIEC), Europako estrategiak eta Euskadiko eskualde-garapenerako estrategia nagusiak (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 / RIS3 Euskadi 2030, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia, 2021-2024 Industriaren Garapen eta Nazioartekotze Plana, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia, Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena eta Basque Green Deal Ekimena, 2030 Euskal Estrategia Energetikoa, 2022-2027 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia, Euskadiko 2021-2027 Lehentasunezko

Ekintza Esparrua (LEE...), Batasunaren kohesio-politikaren helburu politikoak jorratzen dituen ikuspegi zabal batekin, Euskadiren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzeko.

Programa garatzeko, elkartzeko printzipioa errespetatu behar da (Xedapen Komunen Erregelamenduaren 8. artikulua eta Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen esparruan Europaren Jokabide Kodeari buruzko 240/2014 Erregelamendu Eskuordetua), baita Xedapen Komunen Erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritako printzipio horizontalak ere —printzipio horiek bermatuko dute Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna Funtsak gauzatzean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zainduko dute, diskriminazio oro saihestuko dute, kontuan hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna eta garapen jasangarriaren sustapena—.

Xedapen Komunen Erregelamenduaren 108. artikulua hiru eskualde-kategoria definitzen ditu, eta horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa “Eskualde garatua” izango litzateke.

EGEF Programak 165.679.269 euroko zuzkidura du guztira.

Eskualde-kategoria bakoitzak Xedapen Komunen Erregelamenduaren 112. artikuluan zehaztutako elkarrekin finantzatzeko portzentaje batzuk ditu esleitu; Euskadiren kasuan, % 40koa da. Horrek esan nahi du programaren jarduketak gauzatu, egiaztatu eta Europako Batzordeari ziurtatu ondoren, EGEFen diru-itzulketak jasoko direla, ehuneko hori egindako guztizko gastuaren gainean aplikatuz.

Era berean, EGEF Erregelamenduak 4. artikuluan gai-kontzentrazioko baldintza batzuk ezartzen ditu, EGEF laguntza helburu politikoaren artean nola esleitu behar den zehazten dutenak. Zehazki, honako hauek dira EGEF Programaren 2021-2027 aldirako gai-kontzentrazioko baldintzak:

- **Eskualde garatuenak: gutxienez EGEF baliabideen % 85ek HP1 eta HP2ra joan beharko du, eta gutxienez % 30ek HP2ra joan beharko du.**

EGEF Erregelamenduak bi salbuespen ezartzen ditu. HP1en kasuan, konektagarritasun digitalari buruzko 5. helburu espezifikoak (HE1.5) % 40an baino ez da zenbatuko, eta HP2n, hiri-mugikortasunari buruzko 8. helburu espezifikoak (HE2.8) % 50ean baino ez da zenbatuko.

2.2.3 Lehentasanak, helburu espezifikoak eta inbertsio-ildoak

EGEF Erregelamenduak bere 3. artikuluan definitzen ditu Xedapen Komunen Erregelamenduaren 5. artikuluan zehaztutako eta dokumentu honen 2.1. atalean jasotako bost helburu politikoak zatitzen dituzten helburu espezifikoak. Gainera, Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22.2 artikulua ezartzen du programa bakoitzak lehentasan politiko bat edo batzuk izango dituela. Lehentasan horiek helburu politikoaren eta helburu espezifikoaren arteko tarteko mailan zehaztu beharko dituzte Europar Batasuneko Estatuak.

3. taula. Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren egitura.

Helburu politikoak	Lehentasuna	Helburu espezifikoak
HP1. Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa	L1.A Trantsizio digitala eta adimentsua	HE11 - I+G+B
		HE12 - Digitalizazioa
HP2. Europa berdeagoa	L2.A Trantsizio berdea	HE21 - Energia-efizientzia
		HE24 - Arriskuak
		HE25 - Ura
		HE27 - Biodibertsitatea
	L2.B Hiri-mugikortasuna	HE28 – Hiri-mugikortasuna

Kontuan hartuta arauzko eskakizun horiek (gai-kontzentrazioa eta lehentasan politikoaren identifikazioa) baliabideen esleipenean ahalik eta malgutasun handiena uztartzeko beharrezkin konbinatu behar direla, xurgapena optimizatze aldera, programaren egitura hau definitu da **HIRU lehentasanen** bidez.

Egitura horrekin sendotu egiten da Euskadiko agintariek trantsizio berde, digital eta adimentsuekin duten konpromiso sendoa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren planteamenduekin bat etorritik erabat.

1. helburu politikoaren barruan lehentasun bat definitu da, L1.A Trantsizio digitala eta adimentsua; helburu espezifiko hauek ditu:

- 1.1 Helburu espezifikoa. **ikerketa- eta berrikuntza**-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea;
- 1.2 Helburu espezifikoa. **Digitalizazioaren** abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat;

2. helburu politikoaren barruan 2 lehentasun definitu dira, 2.A lehentasuna. "Trantsizio berdea", energiaren eta ingurumenaren esparruetako helburu espezifikoak barne hartzen dituena, eta 2.B lehentasuna, hiri-mugikortasunari buruzkoa, izan ere, erregelamendu bidez ezartzen da hiri-mugikortasunari buruzko HE2.8k lehentasun bereizia izan behar duela.

P 2.A Trantsizio berdea lehentasunak energia- eta ingurumen-esparruari buruzko helburu espezifiko hauek biltzen ditu:

- 2.1. helburu espezifikoa. **Energia-efizientzia** eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea;
- 2.4. helburu espezifikoa. **Klima-aldaketarako egokitzapena, hondamendi-arriskuaren prebentzioa** eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta;
- 2.5. helburu espezifikoa. Ur-eskuragarritasuna eta **kudeaketa hidriko jasangarria** sustatzea;
- 2.7. helburu espezifikoa. **Naturaren, biodibertsitatearen** eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «**azpiegitura berdeak**») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiri-zonetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.

Eta 2.B "Hiri-mugikortasuna" lehentasunak. 2.8. helburu espezifikoa barne hartzen du:

- 2.8. helburu espezifikoa. "**Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria** sustatzea", zero karbono-emisio garbiko ekonomia baterantzko trantsizioaren parte gisa.

Horrela, eskualdearen ezaugarritze demografiko eta ekonomikoko, eskualdearen lehiakortasun-posizionamenduko eta AMIA analisiko lanak egin ondoren, eta Erronka Estrategiko nagusiak identifikatu ondoren, eta Europako Esparruaren funtsezko erreferentzia nagusiak, Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua eta Espainiak Europako Batzordearekin duen Elkartzeko Akordioa kontuan hartuta, **EGEF funts guztiak 1. eta 2. helburu politikoetan biltzea planteatzen da**, kontuan hartuta baliabideen % 30, gutxienez, **2. helburu politikoari** esleitu behar zaizkiola, eta EGF+ Funtsak 4. helburu politikoan (Europa sozialagoa eta inklusiboagoa) biltzen diren testuinguruan.

Halaber, helburu espezifikoak hautatzeko, honako hauek ere hartu dira kontuan:

- Klima-aldaketari (>% 30) eta biodibertsitateari (>% 4) laguntzeko arauzko eskakizunak betetzeko beharra, alderdi horiek programaren konfigurazioa modu erabakigarrian baldintzatu baitute; izan ere, klima-aldaketari eta biodibertsitateari laguntzen dieten jarduketan tipologia 2. helburu politikoaren barruan kokatzen da funtsean.
- Aurrekontuaren azterketa, funtsak xurgatzeko gaitasun handia baitago EGEF funtsen esku-hartzerako hautatutako interes-esparruetan.
- Aurreko programazio-aldien esperientzia, bai gai-kontzentrazioari dagokionez, bai jarduketak garatzeaz arduratzen diren organo kudeatzaileena. Horrela, aurreko programazio-aldietan

(2007-2013 eta 2014-2020), EGEF Programaren baliabideak hazkunde adimendunean eta jasangarrian kontzentratuta zeuden batez ere, eta neurri handi batean bat zetozen 2021-2027 programazio-aldi berriaren orientabideekin.

- 2021-2027 EGEF Programan garatu beharreko jarduketak koordinatzea, bai REACT-EU funtsei dagozkienekin, bai Netx Generation-EU funtsei dagozkienekin.
- Egindako elkartze-prozesuaren emaitzak, bai Batzordearekin eta Kudeaketa Agintaritza - Elkartzeko Akordioarekin, bai erakunde kudeatzaile potentzialekin, beren eskumen-esparruaren arabera, bai eskualdeko eragile sozioekonomiko nagusiekin.

Jarraian, inbertsio-ildo nagusiak identifikatzen dira hautatutako helburu espezifiko bakoitzean, Europako, nazioko eta eskualdeko politiken testuinguruan identifikatutako erronkei erantzuteko:

4. taula. Inbertsio-lerroak helburu politikoaren arabera.

1. helburu politikoa. Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa	
1. A Lehentasuna. Trantsizio digitala eta adimentsua	
Berariazko helburua	Jarduketa motak
1.1. Ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea	Planteatzen da I+G+B proiektuak sustatzea, bai enpresa txiki eta ertainetan, bai enpresa handietan , eta euskal enpresa-elkarteetan, honako jarduera hauek, besteak beste, behar diren baliabideez hornitzeko: • Garapen esperimentaleko jarduerak
1.2. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat	Administrazio publikoari 5.0 Gizartearen kontzepturantz (gizarte irekiagoak, gardenagoak eta herritarrentzat irisgarriagoak) aurrera egiteko, datuen segurtasunari eta bizkortasunari buruzko merkatuko azken aurrerapenak erabiltzeko, eta hodeiko zerbitzuetan estrategikoki eboluzionatzeko aukera emango dioten ekintzak planteatzen dira. Ekintza horiek, era berean, zerbitzu-eskaintza berria ahalbidetuko dute, askoz ere zabalagoa eta beharretara egokitua. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • IKT azpiegitura aurreratuen/berritzaileen garapena dakarten jarduketak, e-gobernuaren eta elkarreragingarritasunaren garapenari euskarria ematea ahalbidetuko dutenak, administrazioa azken belaunaldiako IKT azpiegiturez hornitzeko: datu-zentroak (data center), Big Data, adimen artifiziala eta zibersegurtasuna, besteak beste.
2. helburu politikoa. Europa berdeagoa	
2. A Lehentasuna. Trantsizio berdea	
Berariazko helburua	Jarduketa motak
2.1. Energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea;	Eraikin publikoetan energia-efizientzia hobetu eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuko dituzten inbertsioak babestea planteatzen da, baita energia-efizientiaren arloko proiektu pilotuetan eta/edo ekimen berritzaileetan egindako inbertsio publikoak ere, efektu eredugarria eta erreplikagarria dute-eta. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • Euskal Administrazioaren eraikin publikoak birgaitzea, energia-efizientzia eta, hala badagokio, irisgarritasuna hobetzeko, energia- eta klima-trantsizioa sustatzeko, eta horrela, klima-aldaketa-aren eta ekonomia berde baterako trantsizioaren helburuak betetzen laguntzeko, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen, 2050erako klima-aldaketa-aren Euskadiko estrategiaren, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia 2030en eta GJHei lotutako helburu eta jomugen (Basque Country 2030 agenda) ildotik. • Administrazioak eredu-proiektu berritzaileak, frogagarriak eta erreplikagarriak diseinatzea eta garatzea, energia-ereduaren aldaketa bultzatzeko, eta, horretarako, adibidez, energia-soberakinen aprobetxamendua sustatzea, hala nola industriako hondar-beroaren aprobetxamendua, hurbileko eraikinen energia-beharak estaltzeko.

2.4. klima-aldaketarako egokitzapena, hondamendi-arriskuaren prebentzioa eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta;	Baliabideak uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentzioan zentratzea planteatzen da, URAk (Uraren Euskal Agentzia) egindako arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuaren mapak (funtsezko tresna, 2007/60/EE Zuzentaraua ezartzearen emaitza) eta lurralde bakoitzean ezarriko diren baso-suteen prebentzio-planak aintzat hartuta. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • Era berean, esparru horretan klima-aldaketara egokitzeko sistema berriak ezartzen laguntzea ere planteatzen da (prezipitazioak neurtzea eta abar), neurrien doitasuna hobetzeko, bereizmena handitzeko, atzipen-denborak hobetzeko eta larrialdi-sistemen eraginkortasuna areagotzeko. • Finantzatzeko moduko honako jarduketak hauek planteatzen dira: prebentziozko basogintza-tratamenduak (basogintza-tratamenduak eta belar-sastrakak garbitzea, baso-erregaiaren etenak mantentzeko eta sortzeko, hala nola suaren kontrako eremuak eta pisten zerrenda osagarriak); baso-suteen kontra babesteko azpiegitura egokitzeko (basoetan barneratzea eta bidezidorrak, bideak, pistak eta abar berritzea, finkatzea, egokitzea eta modernizatzea...); eta, suak lurraldean duen arriskuaren eta portaeraren analisiari aplikatutako lurralde-kudeaketako teknologia berriak aplikatzea.
2.5. Ur-eskuragarritasuna eta kudeaketa hidriko jasangarria sustatzea	azaleko ur-masen leheneratze hidrikorako eta hornidura hobetzeko inbertsioak babestea planteatzen da, herritarrek ura kalitatez eta behar den kantitatean eskuratzeko aukera izan dezaten bermatzeko hornidura hobetzeko. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • Urak saneatzeko eta arazteko zerbitzuak eta uraren ziklo integralaren kudeaketa jasangarria bermatzeko jarduketak. Ez da hondakin-uren araztegi konbentzional berririk sartuko, “naturaren oinarritutako soluzioak —iragazki berdeak—” txertatzen dituztenak besterik ez, ekosistemetan oinarritutako neurriak bultzatzeko.
2.7. Naturaren, biodibertsitatearen eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «azpiegitura berdeak») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiri-zonetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea	Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea bultzatzea planteatzen da, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin (KLIMA 2050 Basque Country) bat, eta, bereziki, 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiarekin (ekosistemak babestea eta leheneratzea, eta Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa) eta Euskadiko 2021-2027 Lehenatasuneko Ekintza Esparruarekin (funtsean habitata eta espezieak kontserbatzera bideratutako lehenatasuneko neurriak) bat. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • Esku-hartze puntualak egingo dira neurri batean errekaren ibaiertzak osatzen zituzten instalazio zaharren aztarretako elementu antropikoak kentzeko. Hala, ahalik eta espazio naturalizatuena sortuko da, leheneratze ekologikoa eta ingurunea biztanleen aisialdi- eta gozamen-jardueretarako berreskuratzea ahalbidetuko duena. • Floraren eta faunaren kontserbazioa eta leheneratze naturalerako proiektuak, espezie autoktonoak eta horien birsorkuntza naturaleko faseak kudeaketa jasangarriko irizpideen arabera prebenitzera eta berreskuratzerako bideratuak. • Eragin antropikoko esparruetan eta karbono-hustuleku naturalean degradatutako eremuak leheneratzea. Asmoa da eragin antropikoko esparruetan degradatutako eremuak leheneratzea, ingurunearen degradazioa eragin duten prozesuen jarraitutasuna saihesteko eta kaltetutako zonaren ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko, betiere naturara egokitutako soluzioetan oinarrituta; Natura 2000 Sareko espazioetan eta natura-balioen ondorioz babestuta dauden espazioen arteko konektagarritasun ekologikoko zona estrategikoetan egoera ekologikoa hobetzea; lurraldearen CO2

	hustuleku izateko ahalmena hobetzea, eta, horretarako, karbonoa xurgatzeko eta biltegitatzeko potentziala duten zonetan baso naturalaren azalera handitzea, klima-aldaketa arintzen aktiboki laguntzeko; eta, hiri-, industria- eta azpiegitura-garapeneko eremuetan kutsaduraren aurkako indargetze-zonak (iragazki berdeak) edo babes-zonak sortzea, hiri-garapeneko inguruneen ingurumen- eta paisaia-baldintzak hobeto daitezen, irizpide ekologikoei jarraitzen dieten berdegune zuhaitzuenak sortzearen bidez. • Ibilbide berdeak. Landa-inguruneen esparru horietan bizikleta erabiltzeko ingurune naturala babesten eta kontserbatzen lagunduko luke, ingurumen hori errespetatzen duten garraio-bideak erabiliz, eta kutsadura murrizten lagunduko luke, zehazki, CO2 emisioak murrizten. • Aukera emango du, gainera, Euskadik natura-ondarearen babesari buruzko Batasunaren araudiaren inguruan dituen betebeharrak egoki betetzeko, eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko buruzko 9/2021 Lege berria ezarritako betebeharrak inplementatzen aurrera egiteko.
2. B Lehenetsuna. Hiri Mugikortasuna	
Berariazko helburua	Jarduketak motak
2.8: “Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea”, zero karbono-emisio garbiko ekonomia bateranzko trantsizioaren parte gisa.	Hiri-mugikortasun garbia eta erlazionatutako azpiegiturak sustatzea planteatzen da, eta, horretarako, hiri barruko garraio-sistema inklusiboagoak, jasangarriagoak eta efizienteagoak bultzatzea eta garraioaren kanpo-efektu negatiboak (kongestioa, emisioak, airearen kalitatea) murriztea, hiri-mugikortasuneko plan jasangarriak oinarri hartuta. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira: • Hori guztia garraio-sistema elektrikoa lortzera bideratua, garraio publiko kolektibo efizientea, ahalmen handikoa eta ingurumena errespetatzen duena ahalbidetzeko. • Esparru guztietara (bizitokia, lana, zaintza eta aisia) bizikletaz iristeko aukera ematen duten jarduketak hartzen dituzte, hiriguneetatik eta hiri-eta landa-konexioaren bidez, intermodalitatea sustatuz joan-etorrietan, sarearen eta beste garraio-modu batzuen arteko konexioen bidez (adibidez, trenbidea). Trafikoak eta lotutako energia-kontsumoak sortutako ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzen duten proiektuak dira, hiri-arloa, ingurunea eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzen dituztenak. Asmoa da lurraldean zehar mugikortasun jasangarria bultzatzea, eta, horretarako, herritarren artean bizikletaren erabilera sustatzea, baita lanerako joan-etorrietan nahiz edozein motatako eguneroko joan-etorrietan garraio-moduaren aldaketa ere, zirkulatzen ari diren ibilgailu motordunen kopurua murriztea eta gehiegizko kutsatzaileak eta zarata gutxitzea lortzeko.

2.2.4 Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren mende jar daitezkeen programa garatzeko proiektu motak identifikatzea

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar izan dezaketen proiektuen hautaketari dagokionez —hautatutako helburu politikoaren eta helburu espezifikoaren tipologia kontuan hartuta—, eta aurreko programazio-aldietako esperientziari dagokionez, printzipioz eta oro har ez da ikusten garatu beharreko jarduketarik, beharbada, HE2.4 (arriskuak) helburu espezifikoaren esparruan uholdeak prebenitzeko azpiegiturari dagokienez egin daitezkeen jarduketaren bat, eta 2.5. helburu espezifikoaren (Ura) esparruan uren hornidura-, saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak izan ezik.

2.2.5 Programaren finantza-esleipena

Aurretik aipatu bezala, 2021-2027 aldirako Programaren EGEF funtsen finantza-esleipena **165.679.269 eurokoa** da, eta horren finantza-bidea erantsitako taularen arabera zehaztuta dago jada.

5. taula. Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren finantza-esleipena (eurotan)

GUZTIRA	2022	2023	2024	2025	2026	2027
165.679.269	28.300.830	28.756.158	29.220.716	29.694.564	24.607.003	25.099.998

6. taula. HP eta HEen arabera Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren finantza-esleipena

HP/HE	EGEF			Klima-aldaketa		Biodibertsitatea	
	euroak	%a guztizkoarekiko	% Kontzentrazioa	euroak	%a EGEFekiko	euroak	%a EGEFekiko
HE11	62.933.840	38,0	38,0				
HE12	16.871.352	10,2	10,2				
HP1	79.805.192	48,2	48,2	0		0	
HE21	6.748.200	4,1	4,1	2.202.480			
HE24	32.102.020	19,4	19,4	32.102.020		12.840.808	
HE25	8.280.000	5,0	5,0				
HE27	15.678.863	9,5	9,5	6.271.545		15.678.863	
HE28	23.064.994	13,9	7,0	23.064.994			
HP2	85.874.077	51,8	44,9	63.641.040		28.519.671	
GUZTIRA	165.679.269	100,0	100,0	63.641.040	38,4	28.519.671	17,2

Helburu politiko eta espezifikoaren arabera banaketa (ikus erantsitako taula) aurretik adierazitako gai-kontzentrazioko baldintzak kontuan hartuta egin da. Gainera, Elkartzeko Akordioan hautatutako laguntza tekniko tasa finkoko modalitatea izan da (Xedapen Komunen Erregelamenduaren 36.5 artikulua), hau da, Europako Batzordeari bidaltzen zaion gastu-aitorpen bakoitzean jasotako kostu hautagarriaren % 3,5. Horren guztiaren ondorioz, 79.805.192 euroko aurrekontua bideratu da HP1era (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 85.874.077 eurokoa HP2ra (Europa berdeagoa).

Horrela, EGEF funtsen banaketa nahiko orekatua planteatzen da helburu politikoaren artean, guztizkoaren % 48,2 HP1era bideratuz (% 38 HE1.1era eta % 10,2 HE1.2ra) eta % 51,8 HP2ra (% 4,1 HE2.1era, % 19,4 HE2.4ra, % 5,0 HE2.5era, % 9,5 HE2.7ra % 2 eta % 13,5 HE2.8ra); HP1 eta 2ren baterako kontzentrazio-helburua (% 100, eskatutako % 85eko minimoaren nabarmen gainetik), HP2ren kontzentrazio-helburua (% 44,9, eskatutako % 30eko minimoaren nabarmen gainetik), eta klima-aldaketa eta biodibertsitateari egindako ekarpena (% 38,4 eta % 17,2, hurrenez hurren) betez. Alderdi horiek Programaren konfigurazioa modu erabakigarrian baldintzatu dute, klima-aldaketa zein biodibertsitateari laguntzen dioten jarduketaren tipologia 2. helburu politikoaren barruan kokatzen baita funtsean.

2.3 Programaren alternatibak

EGEF Programak egindako diagnostiko-prozesuan identifikatutako erronkei erantzuten die. Diagnostiko horretan, Euskadiko egungo egoera sozioekonomikoa hartu da kontuan, baita EGEF erregelamenduak eta Xedapen Komunen Erregelamenduak 2021-2027 aldirako ezarritako eskakizunak ere. Azterketa horren eta partaidetza-prozesuan bazkide garrantzitsuek egindako ekarpenen ondorioz, aurreko ataletan deskribatutako EGEF Programa zehaztu da.

Gainera, nabarmendu den bezala, programak gai-kontzentrazioko baldintzak bete behar ditu, besteak beste, baliabideen % 30 gutxienez HP2ri esleitzea (2014-2020 aldian baino portzentaje zorrotzagoa) eta klima- eta ingurumen-konpromiso hauek betetzea: klima-helburuak lortzeko % 30eko ekarpena eskuratzea (2014-2020 aldian ez bezala, aldi honetan helburu loteslea da), eta biodibertsitate-helburuei % 4ko ekarpena egiten saiatzea (aldi honetako eskakizun berria). Era berean, Programan sartutako ekintza mota guztiek ebaluazio bat egin beharko dute, DNSH printzipioaren arabera.

Baldintza horiek betetzeko beharrak programazio-alternatibak garatzeko aukera mugatzen du neurri handi batean, eta esparru horretan —Europako Batzordeak jarduketak lehenesteari eta programak biltzeari eta ez zatikatzeari buruz egindako oharrek kontuan hartuta (ezarritako kontzentrazio-irizpide arautzaileez gain)— ezetsi egin da, jada, honako helburu espezifiko hauetan hasieran aurreikusitako jarduketak programatzea: 1.3 (ETEak), 2.2. (Energia berriztagarriak) eta 2.6 (hondakinak), baita 1.1 Helburukoaren zati bat (I+G azpiegiturak) eta 2.1 Helburukoaren zati bat ere (energia-efizientzia azpiegituretan). Era berean, eta irismeneko dokumentuari jarraituz, 2.7 (Biodibertsitatea) helburu espezifikoan sartu beharreko jarduketen tipologia jada birdefinitu da, eta hasieran aurreikusitako ETEentzako laguntzen jarduketen programazioa ere ezetsi da.

Testuinguru horretan, alderdi hori bistaratzeko, **zero alternatiba, hura ez egiteari dagokiona, eta bat alternatiba**, Euskadiko 2014-2020 EGEF Programan oinarrituta **ikuspegi kontinuista mantentzeari dagokiona**, aurreikusten da.

Zero alternatibak ekarriko luke 2021-2027 aldiko arauzko inbertsio-helburuak ez betetzea —horien artean, HP1en eta HP2n gai-kontzentrazioko helburuak, Euskadiko trantsizio berdea eta digital-adimentsua, eta klima-helburuei eta biodibertsitateari laguntzeko ehunekoak erraztuko lituzketenak—; beraz, galdu egingo litzateke Euskadira EGEFen esleipena.

Era berean, 4. kapituluan egindako ingurumen-ebaluaziotik ondorioztatzen den bezala, zero alternatibak ez lituzke proposatutako programak ingurumenean izango lituzkeen ondorio positiboak eragingo, planteatutako programak eragin negatibo esanguratsurik ez duen testuinguru batean.

Bestalde, **bat alternatibak**, zero alternatibaren arrazoiketarekin bat etorritik, erregelamendu-helburuak ez betetzea ekarriko luke; izan ere, 2021-2027 aldirako erregelamenduak egungo egoera sozioekonomikora egokitzen dira, eta klima, ingurumen, gizarte eta beste hainbat arlotako politika berrien ondoriozko konpromiso zorrotzagoak jasotzen dituzte. Zentzu horretan, egungo EGEF Programaren ikuspegiari eusteak ez luke ahalbidetuko gai-kontzentrazio berri handinahiago bat betetzea, batez ere Europa berdeago baten helburuan jasotako jarduketei dagokienez (non baliabideen % 30 gutxienez esleitzea eskatzen den), ezta klima-helburuetan % 30eko edo biodibertsitatean % 4ko ekarpena egitea ere.

Era berean, 1. alternatiba horren aurrekontu-egitura kontuan hartuta (HP1en pisu handiagoa eta HP2ren pisu txikiagoa), proposatutako programaren 1. helburu politikoko esku-hartzei dagokienez ikusitako eragin positiboak handituko lirateke (ikus 4. kapitulua), baina 2. helburu politikoko esku-hartzei dagokienez ikusitako ondorio positiboak murriztuko lirateke, argi eta garbi 1. helburu politikoko esku-hartzeetarako aurreikusitakoak baino handiagoak baitira.

Beraz, **planteatutako programak egoera berriari erantzuten dio, printzipio horizontalak bilduz, garapen jasangarriari eta klimaren eta ingurumenaren arloko konpromiso eta betebeharrak berriei lagunduz; hortaz, aldi honetarako aukerarik onena bezala aurkezten da.**

3. INGURUMENAREN EZAUGARRIAK

3.1 Ingurumen-egoeraren deskribapena

3.1.1 Sarrera.

Kapitulu hau osatzeko, Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikia) egindako “EUSKADIKO 2020KO INGURUMENAREN EGOERA ETA AURREIKUSPENAK” txostenean oinarritu da. Txosten horrek, 2002an Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 egin zenetik, Euskadiko ingurumena osatzen duten esparruen monitorizazio sistematikoan garatu den lan nekaezinarekin jarraitzen du. Lan horrek, Eusko Jaurlaritzak egindako ingurumena hobetzearen eta babestearen aldeko ageriko kontzientziazioaren eta apustuaren barruan kokatua, garrantzi handiagoa du V. Ingurumen Esparru Programa egiteko atarian, ingurumenaren arloan egindako aurrerapena neurtzen baitu eta datozen urteetan Euskadin lehenetsi beharreko jarduketa-esparruak adierazten baititu.

Txostenak ingurumen-bektoreen egungo egoera aztertzen du, eta 2030erako dituzten perspektibak analizatzen ditu. Bertan, jarraipen-panel bat jasota dago, funtsezko adierazleen multzo mugatu batez osatua. Adierazle horiek, hurrengo taulan laburbilduta, ingurumena osatzen duten esparruetako elementu nagusiak biltzen dituzte (atal honen amaieran erantsi da).

Egindako azterketak ingurumen-bektoreen egungo egoera aztertzen du, hala nola ura, airea, klima-aldaketa, zarata, biodibertsitatea, baliabide materialak eta hondakinak eta lurzorua; eta ingurumenarekiko kezka ekonomian, herritarrengan eta udal-kudeaketan zein neurritan dagoen aztertzen du. Era berean, txostenak azken atal bat du, aztertutako ingurumen-bektoreen 2030erako ikuspuntuak aztertzen dituen eta datozen urteetan lehenetsi beharreko jarduketa-esparruak identifikatzeko balio duena.

Zehazkiago, Euskadin ingurumenaren egoera 11 bloketan —lehen aipatutako ingurumen-bektoreei buruzkoak— egituratutako adierazle-panel baten bidez laburbiltzen da, eta 38 adierazle nagusi biltzen ditu guztira, horietako batzuk azpiadierazleetan banakatuta. Hauek dira 2020rako Euskadiko ingurumenaren egoeraren diagnostikoaren atala osatzen duten 11 ingurumen-bloke edo bektoreak:

URA

Uraren adierazleek Euskadin uraren egungo egoeraren jarraipena egin nahi dute, azaleko uren egoera, bainatzeko uren kalitatea, lurpeko urak, kontsumorako ura eta uraren kalitatea aztertuz, eta, zikloaren itxiera gisa, hiriko hondakin-uren arazketa aztertuz (garatzen ari den adierazlea).

AIREA

Airearen adierazleek kutsatzaile atmosferikoen emisioen bilakaera, airearen kalitate-adierazlea eta ozono troposferikoaren eta Euskadiko hiri-populazioaren eraginpean dauden PM10 partikulen kontzentrazioak erakusten dituzte Euskadirako.

KLIMA-ALDAKETA

Klima-aldaketaren adierazleek energia berriztagarrien aurrerabideak eta kontsumo gero eta handiagoak berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eragiten duten ekonomiarantz egindako aurrerapenak monitorizatu nahi dituzte, horrela, lurraldearen aberastasunaren eta honen jarduera sozioekonomikoek sortutako BEG emisioen arteko desakoplamendua ahalbidetuz.

ZARATA

Zarata-adierazleek adierazten dute Euskadin eguneko une bakoitzerako Europar Batasuneko araudiak ezarritakoak baino ingurumeneko zarata-maila handiagoa jasaten duten pertsonen ehunekoa, baita hiru euskal hiriburuetan ibilgailuen eta trenen trafikoei eragindakoa ere.

BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatearen adierazleek honako alderdi hauek aztertzen dituzte: Natura 2000 Sareko espazioak kontserbatzeko eta kudeatzeko inbertsioa, Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera, hegazti arrunt ugaltzaileen adierazlearen bilakaera eta habitaten konektagarritasuna Euskadin.

BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide materialen adierazleek zenbait parametroren bilakaera aztertzen dute, hala nola, Euskadiko baliabideen produktibitatea, etxeko kontsumoa, eta materialen sarreren eta irteeren balantzea. Horrela, ekonomia produktiboagoa eta desmaterializatuagoa lortzeko jarraipen-panela osatzen dute.

HONDAKINAK

Hondakinen adierazleek hondakinen sorreraren ekoefizientziaren jarraipena egin nahi dute, elikadura-hondakinek eragindako arazoak analizatzen dituzte eta materialen birzirkularizazioa aztertzen dute euren balio-bizitzaren amaieran.

LURZORUA

Lurzoruen adierazleek Euskadiko lurzoruen egoera aztertzen dute, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioaren bilakaera, lurzoruen kalitatea ikertzeko prozesuaren etaparen bat jasan duten lurzoruak, eta ikerketa-etaparen ondoren errekuperatu diren lurzoruak analizatuz.

EKONOMIA ETA INGURUMENA

Ekonomia- eta ingurumen-adierazleek erakusten dute ekonomia jasangarriago baterako ekimenek hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen-aldagaien arteko desakoplamenduan duten eragina; administrazioek ingurumena hobetzeko egiten duten inbertsio ekonomikoa; Euskadiko erosketa publiko berdea; eta ingurumenean inpaktuak dituzten jarduerak zergapetzeko tresna fiskalen garrantzia.

HERRITARTASUNA ETA INGURUMENA

Herritarrek ingurumenaren garrantziaz duten pertzepzioa ikustarazteaz gain, gizarte jasangarria eta ingurumenarekin konprometitua sustatzeko hezkuntza-arloan egiten ari diren aurrerapenak erakutsi nahi dituzte **herritartasun- eta ingurumen-adierazleek**.

TOKIKO INGURUMENA

Tokiko ingurumenaren adierazleek agerian uzten dute toki- edo udal-administrazioek hartu duten konpromisoa ingurumena eta herritarrak gehiago errespetatzen dituzten kudeaketa-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan. Horrela, Udalsarea 2030 osatzen duten udalerrien kopurua, horiek GJHei egiten dieten ekarpena eta klima-aldaketaren eta energiaren arloko ekimenei atxikitako udalerrien kopurua aztertzen dira.

6. taula. EAEko ingurumen-adierazleen panela.

ADIERAZLEEN PANELA	
Adierazlea	Unitatea
URA	
1- Lur gaineko ur-masen egoera orokorra 'Ona' (2019)	% 52
2- Lurpeko ur-masen egoera orokorra 'Ona' (2019)	% 92
3- Bainatzeko uren kalitate 'Bikaina' (2018)	% 85
4- Kontsumoko uren kalitate 'Egokia' (2018)	% 98
 AIREA	
5- Kutsatzaile atmosferiko nagusien emisio guztien bilakaera (2018):	
▫ NO _x emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	62
▫ SO _x emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	18
▫ NH ₃ emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	75
▫ NMVOC emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	49
▫ CO emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	30
▫ CH ₄ emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	74
▫ PM _{2,5} emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	100
▫ PM ₁₀ emisioen bilakaera-adierazlea (1990. urtea = 100)	71
6- Airearen kalitatea 'Ona' edo 'Oso ona' duten egunak (2019)	% 91
7- Biztanleria hiritarrak arnastu dezakeen eguneko 70 µgr/m ³ -tik gorako mugatik gora metatutako O ₃ -ko kontzentrazioa (2019)	2.917 µgr/m ³ /egun
8- Biztanleria hiritarrak arnastu dezakeen partikula-materialaren (PM ₁₀) urteko batez besteko kontzentrazioa (2019)	14 µgr/m ³
KLIMA-ALDAKETA	
9- Berotegi-efektuko gasen emisioak (2018):	
▫ BEG emisioak guztira	18,9 Mt CO ₂ e
▫ BEG emisioen bilakaera guztira (2005 – 2018)	-% 26,0
▫ BEG emisio barreiatuak	10,2 Mt CO ₂ e
10- Sektoreen araberako berotegi-efektuko gasen emisioen bilakaera (2005-2018):	
▫ Energiaren sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 23,8
▫ Industriaren sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 47,6
▫ Garraioaren sektoreko BEG emisioen bilakaera	+% 13,6
▫ Bizitegien sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 1,9
▫ Zerbitzuen sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 26,0
▫ Hondakinen sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 36,9
▫ Nekazaritzaren sektoreko BEG emisioen bilakaera	-% 49,5
11- Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren gainean (2019)	% 14,6
12- Guztizko BEG emisioen bilakaera-adierazlea / BPGd (2018) (1995. urtea = 100)	48

ADIERAZLEEN PANELA	
Adierazlea	Unitatea
 ZARATA	
13- Gehiegizko ingurumen-zarataren eraginpean dauden biztanleak (2018):	
1. Egun osoan zehar 65 db-tik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak (Lden)	% 17
2. Gauzez 55 db-tik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak (Ln)	% 19
14- Trafikoko/trenbideko gehiegizko zarataren eraginpean dauden biztanleak (2018):	
1. Egun osoan zehar 55 db-tik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak (Lden)	% 59,2/% 2,3
2. Gauzez 50 db-tik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak (Ln)	% 45,5/% 1,5
 BIODIBERTSITATEA	
15- Natura 2000 Sareko espazioen kontserbazioan eta kudeaketan egindako inbertsioa (2016)	13,1 M€
16- Batasunaren intereseko habitaten kontserbazio-egoera 'Aldekoa' (2013-2018):	% 22
1. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten basoak	% 0
2. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten harkaitzak eta kobazuloak	% 63
3. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten habitat hidrozohikatzekoak eta tobazeoak	% 10
4. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten larreak	% 59
5. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten zuhaixka hostogogorak	% 60
6. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten txilardiak eta sastrakadiak	% 50
7. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten ur gezako habitatak	% 0
8. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten dunetako habitatak	% 0
9. Kontserbazio-egoera 'Aldekoa' duten kostaldeko habitatak eta habitat halofitikoak	% 0
17- Batasuneko intereseko espezieen kontserbazio egoera eta joera (2013-2018):	
10. Bisoia europarra (<i>Mustela lutreola</i>)	Txarra/Negatiboa
11. Muturluzea (<i>Galemys pyrenaicus</i>)	Txarra/Berdina
1. Igaraba (<i>Lutra lutra</i>)	Aldekoa/Positiboa
18- Ugaltze hegazti arrunten adierazlearen bilakaera (2019):	
2. Nekazaritza-inguruneen lotutako hegaztien bilakaera-adierazlea (Urtea 1998=100)	56
3. Zuhaixka-inguruneen lotutako hegaztien bilakaera-adierazlea (Urtea 1998=100)	100
4. Baso-inguruneen lotutako hegaztien bilakaera-adierazlea (Urtea 1998=100)	193
5. Hiri-inguruneen lotutako hegaztien bilakaera-adierazlea (Urtea 1998=100)	157
19- Habitaten konektagarritasunaren bilakaera (Oinarri urtea = 2016) (2019):	
1. Tokiko basoak	+0,12
2. Sastrakadiak eta zuhaixkak	-0,10
3. Larreak	+0,27
 BALIABIDE MATERIALAK	
20- Biztanle bakoitzeko material-fluxuak (2017):	
1. Biztanle bakoitzeko bertako erauztea (BE)	5,48 t/biztanleko
2. Biztanle bakoitzeko esportazioak	10,97 t/biztanleko
3. Biztanle bakoitzeko inportazioak	17,53 t/biztanleko
21- Materialen bertako kontsumoa (MBK) (2017)	12,0 t/biztanleko
22- Produktibitate materiala (PM) (2017)	2,81 €/kg
 HONDAKINAK	
23- BPGd-aren unitate bakoitzeko hondakin guztiak (2018)	64 kg hondakin/ 1.000€ BDGd
24- Elikagai-hondakinak (2018)	195 kg/biztanleko

25- Hondakin guztien birziklapen-tasa (2018)	% 52
--	------

ADIERAZLEEN PANELA	
Adierazlea	Unitatea
 LURZORUA	
26- Potentzialki kutsatutako lurzoruen azalera (2018)	9.642 ha
27- Ikertutako eta potentzialki kutsatutako lurzoruen azalera (2018)	149 ha
28- Berreskuratutako lurzoru kutsatuen azalera (2018)	77 ha
 EKONOMIA ETA INGURUMENA	
29- BPGd-aren eta ingurumen-adierazle nagusien bilakaera (2018):	
1. BPGd-aren bilakaera (Urtea 2000=100)	+% 38
2. Energia-kontsumoaren bilakaera (Urtea 2000=100)	-% 4
3. BEG emisioen bilakaera (Urtea 2000=100)	-% 28
4. Materialen bertako kontsumoaren bilakaera - MBK (Urtea 2000=100) (2017)	-% 18
5. PM10 emisioen bilakaera (Urtea 2000=100)	-% 31
6. Hiri-hondakinak zabortegira eramatearen bilakaera (Urtea 2000=100)	-% 53
30- Ingurumenean egindako gastu publikoa (2017)	181,6 M€
31- Erosketa publiko berdea (2019)	449 M€
32- Bildutako ingurumen-zergak (2017)	1.256 M€
 HERRITARRAK ETA INGURUMENA	
33- Ingurumenari buruzko ikuspegia (2020):	
1. Ingurumena hondatzea saihesteko kontsumo-maila gutxitu behar dela dioen baieztapenarekin nahiko ados edo guztiz ados dauden biztanleak	% 89
2. Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuengatik (gutxienez) zerbait gehiago ordaintzearekin nahiko ados edo guztiz ados dauden biztanleak	% 73
34- Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza EA2030	
1. Eskola Agenda 2030era atxikitako ikastetxeak (2020-2021 ikasturtea):	443
2. Eskola Agenda 2030era atxikitako ikasleak (2019-2020 ikasturtea):	187.000
35- Ekoetxeetara egindako bisitak (2019)	100.073
 TOKIKO INGURUMENA	
36- Udalsarea 2030 Udalerrri Jasangarrien Euskal Sareko udalerriak (2020)	190
37- Udalsarea 2030eko udalerriek 'Lurraren' GJHei egindako ekarpena (10 oinarri hartuz) (2018):	7,2
38- Klima-aldaketa eta energiako hitzarmenetara atxikitako udalerriak (2019):	
3. 'Klimaren eta energiaren aldeko alkateen hitzarmenera' atxikitako udalerriak	21
4. 'Alkateen hitzarmena lortzeko aurrera eginez' hitzarmenera atxikitako udalerriak	18
5. 'Compact of Mayors' hitzarmenera atxikitako udalerriak	10

Iturria: Ihobe. EUSKADIKO 2020KO INGURUMENAREN EGOERA ETA AURREIKUSPENAK

Jarraian, Euskadiko ingurumenaren egoeraren azterketa zehazten da, 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioan adierazitako atalen arabera.

3.1.2 Atmosfera-ingurunea. Airearen kalitatea eta zarata

AIREA

Euskadik emisio kutsatzaileen jaitsiera izan du eta airearen kalitatea hobetu egin da. Hala ere, ozonoaren kontzentrazioa handitu egin da.

- Euskadiko kutsatzaile atmosferiko nagusiak nabarmen jaitsi dira 1990etik aurrera. 2,5 mikra baino gutxiagoko partikulak 2006ko gehieneko historikotik jaisten ari dira, eta horrek esan nahi du 2018an 1990eko antzeko mailetan zeudela.
- Euskadiko airearen kalitatearen adierazlearen arabera, 2019an egunen % 91n airearen kalitatea 'ona' edo 'oso ona' izan zen (% 53,7 eta % 37,8, hurrenez hurren), % 6,3n 'hobetu beharrekoa' eta gainerako % 2,3an 'txarra' edo 'oso txarra'. Horrenbestez, 2005eko datuekin alderatuz, hobekuntza nabarmena izan da.
- EB28ko eta Espainiako mailen azpitik mantendu arren, EAEko biztanleak eraginpean dauden 70 $\mu\text{gr}/\text{m}^3$ /eguneko mailaren gainetik metatutako ozono-kontzentrazioa % 28 handitu da 2011-2019 aldian.
- 2019an, Euskadin PM10-aren urteko batez besteko kontzentrazioa 14 $\mu\text{gr}/\text{m}^3$ -koa zen eta Europako Kontseiluak airearen kalitatearen inguruan ezarritako 2008/50/EC Esparru Zuzentarauko 26 $\mu\text{gr}/\text{m}^3$ -ko helburuaren azpitik dago jada.

ZARATA

Euskadin ingurumen-zarataren eraginpean dauden biztanleak Europako tasaren azpitik egon arren, hiru hiriburuetakoa zarata maila altua da oraindik ere.

- Euskadin, 2018an 213/2012 Dekretuan zehaztutako balioen gaineko ingurumen-zarata mailen eraginpean zeuden biztanleak % 17 ziren egunean zehar (Lden) eta % 19 gauean zehar (Ln).
- Gutxi gorabehera EAEko biztanleen % 60 55db (Lden) baino gehiagoko zarata-mailen eraginpean dago; horixe da Europako legeriak ibilgailuen trafikoaren zaratarentzat gehieneko maila gisa zehaztutako erreferentzia.

3.1.3 Geologia, geomorfologia eta lurzorua

LURZORUA

Euskadin legeak xedatutakoaren arabera aurrerapausoak ematen ari diren arren, krisi ekonomikoak joera positiboa gelditu du.

- 2008ko inbentarioa eguneratu ondoren, Euskadin kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kopurua eta azalera nahiko egonkor mantendu dira, eta 2018an 9.642 ha ziren 12.448 partzelatan banatuta.
- 2018an Euskadin ikertu ziren eta kutsatuta egon daitezkeen kokapenen zenbatekoak gehieneko historikoa izan zuen 285 partzelarekin. Horien tamaina txikia denez, ikertutako azalera guztia % 64 murriztu da (149 ha) 2010. urtearekin alderatuz.
- Kutsatutako 87 kokapen berreskuratu ziren 2018an, eta horrekin, 2000. urtean erregistroa hasi zenetik, 1.031 kokapen berreskuratu dira; hau da, berreskuratutako azalera guztia 1.157 hektareakoa da.

3.1.4 Gainazaleko eta lurpeko ingurune hidrologikoa

URA

Euskadiko lurpeko uren, bainatzeko uren eta kontsumorako uren egoera ona da eta gainazaleko uren egoera hobetu egin da.

- Euskadiren joera orokorra da, eta, horren ondorioz, gainazaleko ur-masen egoera hobetu egin da; izan ere, egoera orokorra 'ona' zuten gainazaleko ur-masen ehunekoa % 34koa zen 2012an eta % 52koa 2019an.
- Bestalde, 2019an lurpeko uren egoera orokorra 'ona' zen Euskadiko masen % 92an: dena den, lurpeko ur-masa guztiek egoera ona zuten.
- Halaber, bainatzeko EAEko eremuetako % 85en kalitatea 'bikaina' izan zen 2018an eta Europar Batasuneko tasa orokorraren antzekoa izan zen. Gainera, kalitate nahikoa edo urria duten bainatzeko eremuak murriztu egin dira, 2000. urtean % 47 baitziren eta 2018an, aldiz, % 2.
- Eta 2019ko datuen arabera, uraren kontsumoa 81,4 m³-koa izan zen biztanleko eta ur-kalitate 'oneko' hornidura jaso zuten EAEko biztanleak % 98 izan ziren; hala, uraren kalitate 'onargarriarekin' eta 'eskasarekin' hornitutakoak % 1,6 eta % 0,3 izan ziren hurrenez hurren.

3.1.5 Biodibertsitatea. Landaretza eta Fauna

BIODIBERTSITATEA

Euskadik orokorrean habitaten eta Batasuneko intereseko espezieen kontserbazio-egoera kaltegarria du, baina 2013-2018 urteen arteko bilakaera pixka bat aldekoa da.

- 2016an, Eusko Jaurlaritzak, atxikitako erakunde publikoek eta Foru Aldundiek 13,1 milioi euro inbertitu zituzten RN2000 sareko espazioak kontserbatzeko eta kudeatzeko, hau da, euren aurrekontuaren % 0,05.
- Euskadiko Batasunaren intereseko habitaten (BIH) % 69k kontserbazio-egoera kaltegarria du; bertan, dunetako habitatak, kostaldekoak eta halofitikoak, ur gezakoak eta basoak dira egoera okerreanean daudenak.
- Igaraba da 2007-2018 aldian Euskadin kontserbazio-egoera hobetu duen Batasunaren intereseko espezie bakarra. Muturluze piriniotarrak eta bisoi europarrak kontserbazio-egoera kaltegarria edo txarra dute oraindik ere.
- Nekazaritza-inguruetako espezie abikolek 2019an populazio-gainbehera izan zuten 1998ko datuekin alderatuz. Alderantziz, baso-inguruetako eta hiri-inguruetako hegaztien populazioak hazi egin dira orokorrean.
- Euskadiko habitaten konektagarritasunaren analisiak adierazten du 2016-2019 aldian tokiko belardien eta basoen konektagarritasuna handitu egin dela.

3.1.6 Garrantzi bereziko eremu naturalak

BIODIBERTSITATEA

Euskadik orokorrean habitaten eta Batasuneko intereseko espezieen kontserbazio-egoera kaltegarria du, baina 2013-2018 urteen arteko bilakaera pixka bat aldekoa da.

- 2016an Euskadik Natura 2000 Sarearen kontserbazioan eta kudeaketan egindako inbertsioa 13,1 milioi eurokoa izan zen. Gaur egun, sare horretan babestutako 55 eremu daude eta lurraldearen % 23,3 barne hartzen du. Zenbateko horrek 2010-2016 aldiko beheranzko joerari jarraitzen dio eta Eusko Jaurlaritzaren, atxikitako erakunde publikoen eta Foru Aldundien aurrekontuaren % 0,05 da; era berean, EAEko Barne Produktu Gordinaren % 0,018 osatzen du. Inbertsioa gastu-kategorien arabera aztertuta ondorioztatu da alde batetik, habitaten eta espezieen aldeko kontserbazio-neurrien egikaritzearen kategoriak % 31 barne hartzen duela, eta, beste alde batetik, langileen gastuak urteko inbertsioaren % 22 barne hartzen duela.
- 2013-2018 urteetako Euskadiko Naturaren Egoera izeneko txostenaren arabera, habitaten % 22k kontserbazio-egoera aldekoa du orokorrean, % 49ren egoera ez da egokia eta % 20rena txarra da (% 69 kaltegarria), eta horrek esan nahi du datuak hobetu egin direla 2007-2012 aldiarekin alderatuta. Habitaten arabera, dunetako habitatak, kostaldekoak eta halofitikoak, ur gezetakoak eta basoak dira kontserbazio-egoera txarrena dutenak. Dunetako eta kostaldeko habitaten eta halofitikoaren kasuan, beraien kontserbazio-egoera txarra da; izan ere, hiri-guneek, merkataritza-inguruek eta inguru industrialek presioak eragiten dituzte habitat horietan. Alderantziz, ur gezako habitaten eta basoetako habitaten kontserbazio-egoera txarra da hurrenez hurren nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreek eta basogintzak haietan egiten duten presioagatik. Bestalde, hariztiak, larreak, zuhaixka hostogogorak eta txilardiak eta sastrakadiak Euskadin hobekien kontserbatuta dauden habitatak dira.

3.1.7 Ingurune sozioekonomikoa

KLIMA-ALDAKETA

Energia berriztagarrien kuota gehitu den arren, BEG emisioak egonkortu egin dira eta EAEko garraioen emisioek handitzen jarraitzen dute.

- Oinarri-urtea 2005 izanik, Euskadiri % 13 puntu falta zaizkio Klima 2050 estrategian BEG emisio guztiei dagokienez 2030erako finkatutako % 40ko murrizketa lortzeko; eta 18,2 puntu falta zaizkio EBk 2030erako emisio barreiatuen inguruan ezarritako %30eko murrizketa lortzeko.
- 2019an, garraioen sektorea izan zen bakarra BEGen emisio-gehikuntza izan zuena 2005eko datuekin alderatuz (+% 12,5). Haren emisioen eta industria-emisioen batura (urte horretan CO₂-ko 12 Mt-koak) Euskadiko BEG emisio guztien % 64 izan zen.
- Euskadiri ehuneko 6,4 puntu falta zaizkio 2030erako 3E2030ek finkatutako energia berriztagarrien % 21eko helburura iristeko eta 30,7 puntu falta zaizkio Klima 2050 Estrategiak 2050erako ezarritako azken kontsumoarekiko energia berriztagarrien % 40ra iristeko.
- Posible da haztea eta aldi berean BEG emisioak murriztea. Emisioak murrizteko politikak herrialdeen ekonomia ahultzearekin lotu gabe, Euskadin, 1995etik bananduta daude BPGd-a eta BEG emisioak.

BALIABIDE MATERIALAK

Materialen bertako kontsumoa murriztean eta BPGd-a handitzean Produktibitate Materiala gehitu egin da.

- Euskal sistema ekonomikoak geroz eta menpekotasun txikiagoa du materialekiko, eta, horren ondorioz, inportazioak gutxitzeaz gain, baliabide natural propioen ustiapena gutxitzen da.

- 2000-2017 aldian % 21 gutxitu zen Euskadiko materialen bertako kontsumoa, eta horrenbestez, badirudi posible dela ekoizpen-eredu berri bat eta baliabideen kontsumo jasangarriagoa eta aprobetxamendu eraginkorragoa egitea.
- Euskadiko produktibitate materialaren jaitsierak (2017an 2,81 €/kg-koa zen) EAEko ekonomian hirugarren sektorearen pisua murrizten du eta materialekiko menpekotasun handiagoa erakusten du.

HONDAKINAK

Euskadin egonkortu egin dira hondakinen sorkuntza eta hondakinen birziklapen-tasa.

- Hondakinen sortzearen eta Euskadiko BPGd-aren arteko banantze erlatiboa egoteak esan nahi du jarduera ekonomikoa “ekoefizienteagoa” dela, izan ere, BPGd unitate bakoitzeko sortutako hondakinak murriztu egin dira; adibidez, 2018an 64 kg hondakin sortu ziren BPGd-aren mila euroko.
- Sortzen ari den adierazlea izan arren eta horri buruzko informazio gutxi egon arren, aurretiazko kalkuluak zehazten dute Euskadin 2018ko elikagaien hondakinen sorkuntza-tasa 195 kg-koa izan zela biztanleko, hau da, 2014an erregistratutakoa baino % 13 handiagoa.
- Euskadin 2018an ekoizpenean eta kontsumoan sortutako hondakin guztien (meatzaritzako nagusiak salbuetsita) birziklapena % 52koa izan zen, hau da, EBko % 57koa baino pixka bat txikiagoa (2016ko datua).

EKONOMIA ETA INGURUMENA

Euskadik desakoplamendu nabarmena du BPGd-aren eta ingurumen-adierazle nagusien artean.

- Euskadik desakoplamendu nabarmena du BPGd-aren eta ingurumen-adierazle nagusien artean: 2000-2018 aldirako BPGd-a % 38 handitu bada, ingurumen-aldagaiak, hala nola PM10 partikulen emisioa edo zabortegiko hiri-hondakinak, % 31 eta % 53 murriztu dira, hurrenez hurren.
- Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 2017an ingurumen-era bideratutako 181,6 milioi euroetatik % 80 baino gehiago urarekin eta hondakinekin lotutako proiektuetara bideratu zen. Klima-aldaketari lotutako arloak aurrekontuaren % 2 bakarrik jaso zuen.
- Euskadin 2019an Erosketa Publiko Berdeko 1.407 lizitazio egin ziren 449 milioi euroko kopuruan, eta horrek esan nahi du ehuneko 26 puntu gehitu zirela 2018ko 356 milioi euroekin alderatuz. Erakunde publikoen tipologiaren arabera, ‘beste erakunde’ batzuk dira ingurumen-irizpide gehiago ezartzen dituztenak.
- 2014. urtearekin alderatuz % 19ko gehikuntza egon arren, Euskadin ingurumen-zergen bitartez 2018an bildutako 1.256 milioi euroak zerga guztien % 7,6 dira eta BPGd-aren % 1,6.

HERRITARRAK ETA INGURUMENA

EAEko herritarren ustez, ingurumena babestea oso garrantzitsua da eta herritarrek geroz eta aukera gehiago dituzte kalitatezko ingurumen-hezkuntza jasotzeko.

- 2020an EAEko biztanleen % 48k uste du arduratsuak direla ingurumenaren egoerarekiko, eta gai hori herritarrak gehien kezkatzen dituen zazpigarren arazoa da.
- 2020-2021 ikasturtean egonkortu egin da EA2030 proiektuari atxikitako ikastetxeen (443) eta ikasleen (187.000) kopurua. ‘Jasangarritasunerako eskola’ ziurtagiria duten ikastetxeak 108 izango dira 2020-2021 ikasturtean, eta badirudi kopuru hori ere egonkortu egin dela.

- 2019an 100.989 bisitari egon ziren Ekoetxeen sarea osatzen duten lau zentroetan, hau da, 2008ko 41.723 bisitak kontuan hartuz, % 140 gehitu da kopurua. Urdaibaiko Ekoetxean 66.989 bisitari egon ziren 2019an, eta horixe da hain zuzen ere bisitari gehien izan zituen ekoetxea.

TOKIKO INGURUMENA

Euskadiko udalerri askok Udalsarea 2030 sarean parte hartzen dute eta horietako batzuk klima-aldaketa eta energiako ekimenetara atxikita daude.

- Udalsarea 2030 sarearen barnean EAEko 190 udalerri daude, hau da, Euskadiko udalerrien % 76 eta biztanleen % 98.
- Udalsarea 2030eko udalerriek 'Lurrari' lotutako GJHei egiten dizkieten ekarpenen batez besteko balioa 7,2koa da 10 oinarri gisa hartuz. Horien artean, 12. GJHak (ekoizpen eta kontsumo arduratsua) 8,3ko puntuazioa du, eta horrexek erakusten du ekarpen handiena.
- 2019an EAEko 23 udalerri zeuden energiari eta klima-aldaketari lotutako ekimenei atxikita.

3.2 Sintesia: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

4. kapituluaren (ingurumen-ondorioak) egindako azterketatik ondorioztatzen denez, espero daiteke EGEF Programak ez izatea ingurumen-inpaktu negatibo esanguratsurik oro har, eta Natura 2000 Sareari dagokionez bereziki; aitzitik, eragin positibo esanguratsua espero da, Euskadiko "trantsizio berdea" bultzatuz datozen urteetan.

Ildo beretik, Programaren zuhertasunak kontuan hartuta (DNSH printzipioaren ebaluazioa eta indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzea), nekez gertatzekoa da Programa gauzatzearen ondoriozko ekintzek azaleko ur-masa batean aldaketa hidromorfologikoa eragitea edo lurpeko ur-masa batean maila aldatzea, egoera ona edo potentziala lortzea eragotziz, edo haren egoera edo potentziala hondatzea eraginez. Gainera, ur-baliabideak babestearekin eta kudeatzearekin zerikusia duten jarduketek bat etorri beharko dute plan hidrologikoetan eta horien ingurumen-adierazpen estrategikoetan ezarritakoarekin.

Hori guztia, a priori, HE1.1 - I+G+B, HE1.2 - Digitalizazioa, HE2.1 - Energia-efizientzia, HE2.4 - Arriskuak, HE2.5 - Ura, eta HE2.6 - Ekonomia zirkularra helburu espezifikoaren jarduketetarako kokapen geografiko zehatz bat definitzerik ez dagoen esparru batean; hala ere, posible da alde aurretik kokapen geografiko bat hurbiltzea naturaguneetako biodibertsitate eta naturaren babesa eta kontserbazioa sustatzearen esparruan, bereziki eremu babestuetan, Natura 2000 Sarea barne (HE2.7 - Biodibertsitatea) eta hiri-mugikortasun jasangarriaren esparruan (HE2.8 - Hiri-mugikortasuna).

Testuinguru horretan, EGEF Programan garatu beharreko ekintzen kokapenari dagokionez identifikatutako ingurumen- eta paisaia-unitate homogeneoak honako hauek dira:

1. UNITATEA. INGURUMENAREN ALDETIK GARRANTZITSUAK DIREN EREMUAK.

5. kapituluaren (prebentzio-neurriak) zehazten den bezala, EGEF Programak esparru garrantzitsu horiek kontuan hartuko ditu Programaren arloan elkarrekin finantzatu daitezkeen eragiketak hautatzeko prozeduretako kokapen- edo garapen-baldintzatzaile gisa. Ildo horretan, espazio horietan planteatzen diren jarduketek dagokienek, espazio horiek babestu eta kontserbatzera bideratutakoak lehenetsiko dira, eta, hala badagokio, garapen jasangarriari bultzada argia emango dioten jarduketak (energia-efizientzia, arriskuen prebentzioa...). Hala badagokio, gainerako jarduketak horietan kokatzeko, ingurumen-araudia zorrotz bete beharko da beti.

Irismeneko dokumentuan deskribatzen den bezala, Programaren lurralde-esparruan bereziki garrantzitsuak diren eremuak daude, dituzten natura-balio bikainengatik, kultura-balioengatik edo giza osasunerako eta ingurumenerako gaur egungo edo etorkizuneko arriskuengatik.

Aipatutako lehenengo eremuen artean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aplikatzearen ondorioz ingurumena babesteko araubideren bat duten espazioak daude. Lege hori oinarritzko legeria da natura kontserbatzeko, natura-ondarea eta biodibertsitatea babesteko. Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, bestalde, IV. tituluko II. kapituluaren garatzen du naturagune babestuen euskal katalogoa. Era berean, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen arabera babestutako ibai-eremuak ere ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremutzat hartu behar dira.

Azken batean, babes-kategoria horren barruan honako eremu eta elementu hauek daude:

- Parke naturalak
- Natura-erreserbak
- Biotopo babestuak.
- Monumentu naturalak, zuhaitz eta baso bereziak, mikroerreserbak eta interes geologikoko lekuak barne.
- Paisaia natural babestuak, hau da, beren balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurraldearen zatiak.
- Natura 2000 Sarea (Batasunaren Intereseko Lekuak, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak).
- Nazioarteko hitzarmen eta akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatutako naturguneak, eta, bereziki, honako hauek:
 - Ramsar hezeguneak.
 - Urdaibai Biosfera Erreserba.
 - Euskal kostaldeko geoparkea.
 - Ospar hitzarmeneko eremu babestuak
- EAEko azpiegitura berdearen parte diren funtzio anitzeko natura-intereseko beste espazio batzuk, LAGetan identifikatuak, korridore ekologikoen sarea —planeamenduak definituak Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektagarritasuna hobetzeko—, eta fauna eta flora basatiko espezieen populazioen arteko migrazioarako, banaketa geografikorako eta truke genetikorako funtsezkoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaiako elementuak eta lehorreko eta itsasoko eremuak. Lehorreko eta uretako faunarentzako korridoreak ez ezik, aireko korridoreak ere kontuan hartu beharko dira; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eskualde-mailan identifikatutakoak eta Lurralde Historikoen eskalan identifikatutakoak hartuko dira kontuan, gutxienez (Arabako Lurralde Historikoko Konektagarritasun Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategia; Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea planifikatzeko diagnostikoa. 2019. urtea).

Gainera, kontuan hartuko dira ingurumen-balio nabarmenak dituzten beste eremu batzuk, eta katalogo eta inbentario hauetan jasota daudenak edo etorkizunean jaso daitezkeenak:

- Arriskuan dauden flora- edo fauna-espezieak banatzeko interes bereziko eremuak, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartuta daudenak (dagozkien kudeaketa-planetan definitutako interes bereziko eremu guztiak kontuan hartuta), eta “Euskadiko landaredia baskularraren zerrenda gorrian Galtzeko Arrisku Kritikoan dagoen landaredia berreskuratzeko planetan” identifikatutako babes-eremuak; era berean, kartografiatutako landaredia mehatxatuko espezieen kokaleku ezagun guztiak hartuko dira kontuan (geoEuskadin eskuragarri). Egoera berean egongo dira EAEko Kiropteroak Kudeatzeko Planaren proposameneko kiropteroentzako babeslekuak eta lehentasunezko eremuak, eta estepako hegazti kalteberentzako garrantzi bereziko eremuak.
- EAEko Baso Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko Lurralde Historikoetako foru-arauen babesean aitortutako onura publikoko mendiak.
- Paisaia-balioagatik katalogatutako esparruak, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen katalogoaren, Paisaiaren Katalogo eta Gidalerroen eta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren arabera.
- EAEko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan sartutako Lekuak.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean sartutako hezeguneak.
- EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean jasotako Interes Bereziko Eremuak.

- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina), bereziki lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Sarearen barruan edo kanpoan, eta Eskualde Intereseko Habitatak (EUNIS Habitatak kartografian eskuragarri, 2019. urtea, geoEuskadi).
- Arriskuan dauden hegazti-espezieentzako intereseko eremuak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritakoak. Agindu horren bidez, arriskuan dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanaketa eta kontzentrazioarako lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-fauna babesteko eremuak argitaratzen dira. Horietan, goi-tentsioko linea elektrikoetan talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak aplikatuko dira.
- Hegaztiak eta Biodibertsitatea Kontserbatzeko Eremu Garrantzitsuak (IBAs)

Halaber, ingurumenaren aldetik garrantzitsuak dira Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko Demarkazio Hidrologikoen Plan Hidrologikoetan ezarritako Eremu Babestuen Erregistroko (EBE) balio agrologiko handiko lurzoruak eta beste zona batzuk, lehen aipatutakoen barruan ez daudenak, Euskadin, baita lurralde- eta hirigintza-plangintzatik eratorritako babes-araubideren bat duten natura-guneak ere, hala nola Txingudiko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Bereziak antolatutako esparruak.

Kultura-balio garrantzitsuak dituzten esparruen artean, kultura-ondarearen zati izateagatik kalifikatutako eta inbentariatutako eremuak edo ondasunak daude, baita ustezko arkeologia-eremuak ere.

Eta ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten eremuen artean daude 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten eremuak, 500 urtekoez gain, lehentasunezko fluxu-eremuak, higatu daitezkeen edo higitzeko arriskua duten eremuak, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruak eta akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak. Horiei baso-suteak, arrisku sismikoa eta arrisku teknologikoak (salgai arriskutsuen garraioa, SEVESO III arriskua) izateko arrisku handia duten eremuak gehitzen zaizkie.

2. UNITATEA. HIRIGUNEAK.

Hiri-mugikortasun jasangarriaren esparruan berariazko hiri-garapen jasangarriko jarduerak garatzea planteatzen da arlo horietan, 2. helburu politikoaren (Europa berdeagoa) 2.8 helburu espezifikoaren esparruan.

4. INGURUMEN-ONDORIOAK

Jarraian, hautatutako helburu espezifiko bakoitzean garatu beharreko inbertsio-/jarduketa-lerroek aurreikus ditzaketen eraginen balorazioa egingo da. Ebaluatu beharreko alderdiak honako hauek dira:

- Azpisistema fisiko naturala:
 - Ingurune fisikoa:
 - ✓ Atmosfera
 - ✓ Zarata
 - ✓ Geologia
 - ✓ Hidrologia
 - Ingurune biotikoa:
 - ✓ Landaretza
 - ✓ Fauna
 - Pertzepziozko ingurunea
 - ✓ Paisaia
- Populazioen eta jardueren azpisistema:
 - ✓ Naturguneak
 - ✓ Hondakinak
 - ✓ Kultura-ondarea
 - ✓ Komunikazioa eta azpiegiturak
 - ✓ Biztanleria
 - ✓ Egitura ekonomikoa

Eta efektuen adierazgarritasun-mailari dagokionez, honako eskala hau erabiltzen da:

- **+^S : Eragin positibo esanguratsua**
- +^{NS}: Eragin positibo ez-esanguratsua
- Hutsa: Eragin neutroa
- -^{NS}: Eragin negatibo ez-esanguratsua
- **-^S: Eragin negatibo esanguratsua**

7. taula. Euskadiko 2021-2027 EGEF Programako eragin posibleak eta adierazgarritasuna baloratzeko matrizea

Helburu politikoak, lehentasun eta helburu espezifikoak eta ekintza-ildoak			Ebaluazio-alderdiak*												
			Azpisistema fisiko naturala							Populazioen eta jardueren azpisistema					
			Ingurune fisikoa				Ingurune biotikoa		Pertzepzioz ko ingurunea	Naturguneak	Hondakinak	Kultura-ondarea	Komunikazioa eta azpiegiturak	Populazioa	Egitura ekonomikoa
			Atmosfera	Zarata	Geologia	Hidrologia	Landaretza	Fauna	Paisaia						
HP1 Europa lehiakorrago a eta adimentsua goa	L1.A Trantsizio digitala eta adimentsua	HE11 - I+G+B enpresak												+ ^{NS}	+ ^S
		HE12 - Administrazio Publikoaren digitalizazioa	+ ^{NS}	+ ^{NS}							+ ^{NS}			+ ^S	+ ^S
HP2. Europa berdeagoa	L1.A Trantsizio berdea	HE21 - Eraikin publikoen energia-efizientzia	+ ^S											+ ^S	+ ^{NS}
		HE24 - Uholde eta suteen arriskua	_ ^{NS}		_ ^{NS}	+ ^S	+ ^S	+ ^S	_ ^{NS}	+ ^S				+ ^S	
		HE25 - Ur-hornidura, -saneamendua eta -arazketa	_ ^{NS}		_ ^{NS}	+ ^S			_ ^{NS}		+ ^S			+ ^S	+ ^{NS}
		HE27 - Biodibertsitatea	+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S		+ ^S	+ ^S	+ ^S	+ ^S
	L1.A Hiri Mugikortasuna	HE28 – Hiri Mugikortasun Jasangarria	+ ^S	+ ^S	_ ^{NS}				_ ^{NS}				+ ^S	+ ^S	+ ^S

* +S : Eragin positibo esanguratsua
 +NS : Eragin positibo ez-esanguratsua
 Hutsa: Eragin neutroa
 _NS : Eragin negatibo ez-esanguratsua
 -S : Eragin negatibo esanguratsua

1.1. helburu espezifikoa. Ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea

Enpresa-sektorean I+G+Bko jarduerak bultzatzera bideratutako jarduketei dagokienez, ez dira identifikatzen eragin negatibo posibleak, baina espero izatekoa da eragin positiboa izango dutela biztanlerian eta, bereziki, egitura ekonomikoan.

1.2. helburu espezifikoa. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat

Euskal Administrazio Publikoak digitalizatzera bideratutako jarduketei dagokienez, ez dira identifikatzen inpaktu negatibo posibleak, eta modu nabarmen positiboan eragiten diete egitura ekonomikoari eta, oro har, biztanleriari, eta, neurri txikiagoan bada ere, atmosferari eta zaratari (IKTak gehiago erabiltzeagatik desplazamendu gutxiago sortzen baitira) eta hondakinei (IKTak erabiltzeagatik hondakin gutxiago sortzea —papera, etab.—).

2.1. helburu espezifikoa. Energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea

Eraikin publikoen energia-efizientzia hobetzera bideratutako jarduketei dagokienez, ez da inpaktu negatiborik aurreikusten, atmosferarako (emisioen murrizketa) eta, oro har, biztanleriarako ondorio positibo adierazgarriak izan daitezkeenak identifikatuz, eta egitura ekonomikoari modu ez-nabarmenean positiboki eraginez.

2.4. helburu espezifikoa. Klima-aldaketakarako egokitzapena, hondamendi-arriskuaren prebentzioa eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta;

Uholde- eta sute-arriskuak prebenitzera eta kaltetutako eremuak leheneratzera bideratutako jarduketei dagokienez, hidrogian, ingurune biotikoan (landaredia eta fauna), naturaguneetan eta euskal biztanleria osoan eragin positibo nabarmenak izatea espero da. Era berean, atmosferan (emisioak), geologian (lurzoruaren kontsumoa) eta paisaian ondorio negatiboak izateko arriskua ikusten da, uholde- eta sute-arriskuak prebenitzeko jarduketan kasuan azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz, baina, nolanahi ere, ez da esanguratsua, are gehiago kontuan hartuta DNSH printzipioa ebaluatzeko eta indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzeko jada aipatu diren kautelak.

2.5. helburu espezifikoa. Ur-eskuragarritasuna eta kudeaketa hidriko jasangarria sustatzea

Lurrazaleko ur-masen berreskuratze hidrikoari dagokionez, eta ura herritarrentzako nahikoa kantitate eta kalitatean eskuratzea bermatzen duten hornidura hobeteari dagokionez, baita hondakin-uren arazketari eta saneamenduari dagokionez ere, eragin positibo nabarmenak izan ditzaketela identifikatu da, bereziki hidrogari, hondakinei eta biztanleriari dagokienez, eta neurri txikiagoan egitura ekonomikoari dagokionez. Hala ere, azpiegituren kasuan atmosferan (emisioak), geologian (lurzoruaren kontsumoa) eta paisaian eragin kaltegarriren bat espero daiteke, azpiegitura berrien balizko eraikuntzatik eratorriak, baina edozein kasutan ez-esanguratsuak, eta are gehiago kontuan hartuta DNSH printzipioa ebaluatzeko eta indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzeko jada aipatu diren zuhertasunak.

2.7. helburu espezifikoa. Naturaren, biodibertsitatearen eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «azpiegitura berdeak») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiri-zonetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea

Eta naturaren eta biodibertsitatearen babesa eta kontserbazioa sustatzera bideratutako ekintzei dagokienez, ez da inpaktu negatiborik aurreikusten, eta ondorio positibo

esanguratsuak izan daitezke ingurune fisikoari (atmosfera, zarata, geologia eta hidrologia), ingurune biotikoari (landaredia eta fauna) eta pertzepzio-inguruneari (paisaia) dagokienez, baita naturaguneei dagokienez ere, bereziki Natura 2000 Sarea, kultura-ondarea, komunikazioa, biztanleria eta egitura ekonomikoa.

2.8. helburu espezifikoak. “Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea”, zero karbono-emisio garbiko ekonomia bateranzko trantsizioaren parte gisa.

Eta hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzera bideratutako ekintzei dagokienez, zero karbono-emisio garbi izango dituen ekonomia baterako trantsizioaren zati gisa, eragin positibo nabarmenak espero dira atmosferan (emisioen murrizketa), zaratan eta komunikazioetan (mugikortasun jasangarria), baita biztanleria osoan eta egitura ekonomikoan ere; aldiz, geologian (lurzoruaren kontsumoagatik) eta paisaian eragin negatiboak hauteman dira, azpiegitura berriak eraikitzeke aukeraren ondorioz. Hala ere, azpiegituren kasuan eragin kaltegarriren bat espero daiteke geologiari (lurzoruaren kontsumoa) eta paisaiari dagokienez, baina, nolanahi ere, ez esanguratsua, dagoeneko urbanizatuta dauden eremuetan ezartzeko testuinguru batean, eta are gehiago kontuan hartuta jada aipatu diren DNSH printzipioaren ebaluazioa eta indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzea.

5. PREBENTZIO-, ZUZENKETA- ETA KONPENTSazio-NEURRIAK

Aurreko kapituluan egiaztatu ahal izan denez, EGEF Programak ez du aurreikusitako ingurumen-ondorio negatibo nabarmenik, baizik eta kontrakoa (ondorio positibo esanguratsu sentikorrak aurreikusten dira), Funtsak 2. helburu politikoan (Europa berdeagoa) eta, zehazki, energia-efizientziaren, arriskuen, uraren, biodibertsitatearen eta hiri-mugikortasun jasangarriaren helburu espezifikoetan kontzentratzen direlako. Aldiz, 1. helburu politikora bideratutako funtsak (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) I+G+Bko jardueretan eta digitalizazioan kontzentratzen dira, garraioa, industria edo energia bezalako sektoreetako obra handiak planteatzen ez diren testuinguru batean.

Era horretan, espero daiteke EGEF Programak ez izatea ingurumen-inpaktu negatibo esanguratsurik oro har, eta Natura 2000 Sareari dagokionez bereziki; aitzitik eragin positibo esanguratsua espero da, Euskadiko “trantsizio berdea” bultzatuz datozen urteetan.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da Programan sartutako jarduketa-ildoan izaera orokorrak honako hau eragiten duela: hautemandako ingurumen-ondorio negatibo posibleak —edozein kasutan ez-esanguratsuak—, batez ere azpiegituraren bat eraikitzearekin lotuta daudenak uholde eta sute-arriskuen prebentzioaren, uraren hornikuntza, saneamendu eta arazketaren edo hiri-mugikortasun jasangarriaren kasuan, generikoak izatea, mekanismo zuzentzaile espezifikoak ezartzea zailduz; mekanismo horiek, bestalde, egokitzen eta/edo aldatzen joan beharko dira azkenean garatuko diren jarduketa zehatzak garatu aurretik egingo den fasean. Nolanahi ere, txosten honetan adierazitako neurriak erreferentzia gisa erabil daitezke neurri zehatzagoak zehazteko, jarduketak hautatu aurretik.

Horrela, EGEF Programaren esparruan garatzen diren jarduketetarako bete beharreko honako premisa hauek ezartzen dira:

- 2. kapituluan aurreratu den bezala, lehenik eta behin, nabarmendu behar da **EGEF Programan soilik sartu ahal izango direla kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH, ingelesezko siglak) betetzeari buruzko ebaluazioa gaingitu duten jarduketak, Taxonomia Erregelamenduko klima eta ingurumeneko sei helburuei dagokienez:**
 - klima-aldaketa arintzea,
 - klima-aldaketara egokitzea,
 - ur- eta itsaso-baliabideen erabilera eta babes jasangarriak,
 - ekonomia zirkularra,
 - kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea
 - eta biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea
- Era berean, EGEF Programan sartzen diren ekintzek **indarrean dagoen ingurumen-araudia bete** beharko dute, hala badagokio, dagokion ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa barne hartuz.
- Gainera, programan jasotako jarduketa mota bakoitzak **klima-helburuak lortzen laguntzeko koefiziente** bat izango du, baita **ingurumen- eta biodibertsitate-helburuak lortzen laguntzeko koefiziente** bat ere; horiek tresna erabilgarriak izan baitaitezke jarduketa mota bakoitzak eta programa osoak kliman eta ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak ebaluatzeko.
- Txosten honetako **3.2 atalean identifikatutako INGURUMENAREN ALDETIK GARRANTZITSUAK DIREN EREMUAK** hartuko dira kontuan, eta, **bereziki, Natura 2000 Sareari buruzkoak**, EGEF Programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketak **hautatzeko prozeduretan kokatzeko edo garatzeko baldintzatzaile gisa**. Hortaz, espazio horietan planteatzen diren jarduketei dagokienez, espazio horiek babestu eta kontserbatzera

bideratutakoak lehenetsiko dira, eta, hala badagokio, garapen jasangarriari bultzada argia emango dioten jarduketak (energia garbiak, arriskuen prebentzioa...); eta, betiere, ingurumen-araudia zorrotz betez, bereziki azpiegiturak garatzea edo ingurune fisikoa zuzenean eraldatzea badakarte.

Horrela, esparru horiek ez dira hain egokiak azpiegiturak garatzea edo ingurune fisikoa zuzenean eraldatzea dakarten gainerako eragiketak garatzeko; beraz, ahal den neurrian, eraldaketa horietatik babestu behar dira.

- 2.1.4 atalean identifikatutako **garapen jasangarrirako printzipioak eta irizpideak** sartuko dira EGEF Programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketak **hautatzeko prozeduretan**.
- Azken buruan, neurri zuzentzaileen aplikazioa kasu bakoitzean organo sustatzaileak bermatu beharko du, prozesuaren **ingurumen-organoak** gainbegiratuta; organo hori **Programaren Jarraipen Batzordeko kide** izango da.

6. INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA

Programaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriei dagokienez, honako hauek planteatzen dira:

- Ingurumen Adierazpen Estrategikoan (IAE) identifikatutako ingurumen-irizpideak eta -zehaztapenak Programaren Jarraipen Batzordeak onartu behar dituen eragiketak hautatzeko irizpideei gehituko zaizkie.
- Programa gauzatzeko urteko txostenek garapen jasangarriaren printzipioari buruzko informazioa jasoko dute.
- Ingurumen Agintaritzen Sareak (IAS) programazioetako ingurumen-inbertsioen efizientzia koordinatzen eta sustatzen jarraituko du, bere lantaldeen eta osoko bilera eta bilera tematikoen bidez.
- Euskadiko ingurumen-organoa Programaren Jarraipen Batzordean egongo da, eta kudeaketa-agintaritzari lagunduko dio, honek hala eskatuta, honako hauen bilakaeraren azterketan:
 - Programaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa (IAE) betetzeko hartutako neurriak (ingurumen-irizpideak eta -zehaztapenak).
 - Ingurumen Azterketa Estrategikoaren jarraipen-adierazleen desbideratze esanguratsuak, halakorik badago.
 - Programetako ingurumen-inbertsioen sustapen-maila, eta inbertsio horien kalitatea, emaitzak eta inpaktua.

Era berean, irismeneko dokumentuari dagokionez, ingurumena zaintzeko programak adierazle-sistema bat izan behar du, ingurumen-alderdiak programan nola txertatu balioesten laguntzeko, bai gaur egun, bai jarraipen-fasean. Adierazle horiek hautatzeko, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

1. Euskadin ingurumena ezagutzeko garrantzitsuak izatea eta euskal gizartearen ingurumen-kontzientzia areagotzen laguntzea.
2. Haiek osatzeko datuak iturri ofizialetan eskuragarri egotea.
3. Euren aldizkakotasun-ezaugarrien arabera aldian-aldian eguneratu ahal izatea, betiere horrek dakarren lan-karga arrazoizkoa bada.
4. Erraz interpretatzeko modukoak izatea, herritar gehienek ulertzeko modukoak.

Ildo horretan, **2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuetarako** ezarritako adierazlerik garrantzitsuenetako batzuk erabiltzea proposatzen da. Adierazle horiek EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak kalkulatu eta eguneratu ditu. Erantsitako taulan proposatutako adierazleak jasotzen dira.

8. taula. Ingurumenaren jarraipena egiteko proposatutako adierazleak

GJH-2030 Agenda	Adierazlea	Unitatea	Aldia	Iturria
3-Osasuna eta ongizatea	Nahigabeko intoxikazioei egotzitako heriotza-tasa	100.000ko hainbestekoa	Urtekoa	EUSTAT
6-Ur garbia eta saneamendua	Kontsumoko Uren Sistema Nazionalaren estaldurarekin ur-hornidura jasotzen duten pertsonen proportzioa	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT
7-Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea	Energia elektrikoaren kontsumoa BPGd-aren unitateko	Petrolio-tona baliokideak milioi euroko	Urtekoa	EUSTAT
8-Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa	Biztanleko BPGd errearen urteko hazkunde-tasa	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT
	Langabezia-tasa	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT
9-Industria, berrikuntza azpiegitura eta	Unitate egoiliarren CO2 emisioak BPGd-aren unitate bakoitzeko	Kilogramoak	Urtekoa	EUSTAT
	Unitate egoiliarren CO2 emisioak manufaktura-sektoreko balio erantsiaren unitateko	Kilogramoak	Urtekoa	EUSTAT
	Ikerteta eta garapeneko gastuak BPGd-ren proportzioan	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT
	Ikertzaileen kopurua (lanaldi osoko baliokidean) milioi bat biztanleko	1.000.000ko hainbestekoa	Urtekoa	EUSTAT
11- Hiri komunitate jasangarriak eta	Biztanle bakoitzeko bildutako hiri-hondakinak	Kilogramoak	Urtekoa	EUSTAT
13- Klimaren aldeko ekintza	Hondamendiei zuzenean egotzitako hildako pertsonen kopurua 100.000 biztanleko	100.000ko hainbestekoa	Urtekoa	EUSTAT
	Unitate egoiliarren berotegi-efektuko gasen guztizko emisioak, BPGd-aren unitate bakoitzeko	CO2 kilogramo baliok.	Urtekoa	EUSTAT
	Unitate egoiliarren berotegi-efektuko gasen guztizko emisioak pertsona bakoitzeko	CO2 tona baliok.	Urtekoa	EUSTAT
15-Lehorreko ekosistemen bizitza	Baso-azalera, azalera osoarekiko proportzioan	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT
	Indarrean dauden kudeaketa jasangarriko tresnak dituen baso-azalera	Hektareak	Urtekoa	EUSTAT
	Indarrean dauden kudeaketa jasangarriko tresnak dituen baso-azaleraren proportzioa	Portzentajea	Urtekoa	EUSTAT

7. INGURUMEN-SINTESIA

Planteatutako EGEF Programak egoera berriari erantzuten dio, printzipio horizontalak bilduz, garapen jasangarriari eta klimaren eta ingurumenaren arloko konpromiso eta betebeharrak berriei lagunduz; hortaz, aldi honetarako aukerarik onena bezala aurkezten da; bere esku-hartzeak 1. helburu politikoan (HP1-Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 2. helburu politikoan (HP2-Europa berdeagoa) kontzentratzea planteatuz.

Horren guztiaren ondorioz, 79.805.192 euroko aurrekontua bideratu da HP1era (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 85.874.077 eurokoa HP2ra (Europa berdeagoa). Horrela, EGEF Funtzen banaketa nahiko orekatua planteatzen da helburu politikoaren artean, guztizkoaren % 48,2 HP1era bideratuz eta % 51,8 HP2ra; HP1 eta 2ren baterako kontzentrazio-helburua (% 100, eskatutako minimoaren % 85etik nabarmen gainera), HP2ren kontzentrazio-helburua (% 44,9, eskatutako % 30eko minimoaren gainera nabarmen), eta klima-aldaketari eta biodibertsitateari egindako ekarpena (% 38,4 eta % 17,2, hurrenez hurren) betez. Alderdi horiek Programaren konfigurazioa modu erabakigarrian baldintzatu dute, klima-aldaketari zein biodibertsitateari laguntzen dieten jarduketaren tipologia 2. helburu politikoaren barruan kokatzen baita funtsean.

EGEF Programak ez du aurreikusitako ingurumen-ondorio negatibo nabarmenik, baizik eta kontrakoa (eragin positibo esanguratsu sentikorrak aurreikusten dira), Funtzak 2. helburu politikoan (Europa berdeagoa) eta, zehazki, energia-efizientziaren, arriskuen, uraren, biodibertsitatearen eta hiri-mugikortasun jasangarriaren helburu espezifikoetan kontzentratzen direlako. Aldiz, 1. helburu politikora bideratutako funtsak (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) I+G+Bko jardueretan eta digitalizazioan kontzentratzen dira, garraioa, industria edo energia bezalako sektoreetako obra handiak planteatzen ez diren testuinguru batean.

Era horretan, espero daiteke EGEF Programak ez izatea ingurumen-inpaktu negatibo esanguratsurik oro har, eta Natura 2000 Sareari dagokionez bereziki; aitzitik eragin positibo esanguratsua espero da, Euskadiko "trantsizio berdea" bultzatuz datozen urteetan.

Gainera, prebentzio-neurrien kapituluaren jasotako programaren kautelak kontuan hartuta (DNSH printzipioaren ebaluazioa, indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzea, eta INGURUMENAREN ALDETIK GARRANTZITSUAK DIREN EREMUAK kontuan hartzea, eta, bereziki, Natura 2000 SAREARI dagozkionak, programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketarik hautatzeko prozeduretan kokatzeko edo garatzeko baldintzatzaile gisa, eta horiei garapen jasangarriaren printzipioak eta irizpideak ere gehitu zaizkie), litekeena da programa gauzatzearen ondoriozko ekintzek eragin negatibo adierazgarriak ez izatea ingurumenean (alderantziz); beraz, ez dago eragozpenik Programa garatzeko.

8. LABURPEN EZ-TEKNIKOA

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren Ingurumen Azterketa Estrategiko honek ingurumen-organoak (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza) emandako irismeneko dokumentuan ezarritako edukiari erantzuten dio.

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programa da 2021-2027 programazio-aldi berrian Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) elkarrekin finantzatzeko dituen jarduketei buruzko estrategia, helburu politiko eta espezifikoa eta Euskadin esku hartzeko ildoak zehazten dituen dokumentua, baita helburu horietarako programatutako finantza-zuzkidurak ere (Programak 165.679.269 euro ditu esleitura guztira EGEF funtsetatik).

Euskadirako diagnostikatutako esku-hartze premia eta erronka nagusiak jarraituta, eta Estatuko Elkartzeko Akordioa Europako Batzordearekin, esku-hartzeen kontzentrazioari buruz ezarritako Batasuneko erregelamendu-xedapenak, Batasuneko funtsen arteko koordinazioa, eta esku hartzeko esparru logikoa (sinplifikazioa eta zatiketarik eza) kontuan hartuta, Programak bere esku-hartzeak 1. helburu politikoan (HP1-Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 2. helburu politikoan (HP2-Europa berdeagoa) biltzea planteatzen du, kontuan hartuta baliabideen % 80, gutxienez, HP1 eta 2ren artean esleitu behar direla, eta, gutxienez, baliabideen % 30 HP2ri esleitu behar zaizkiola.

Horren guztiaren ondorioz, 79.805.192 euroko aurrekontua bideratu da HP1era (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 85.874.077 eurokoa HP2ra (Europa berdeagoa). Horrela, EGEF Funtsen banaketa nahiko orekatua planteatzen da helburu politikoaren artean, guztizkoaren % 48,2 HP1era bideratuz eta % 51,8 HP2ra; HP1 eta 2ren baterako kontzentrazio-helburua (% 100, eskatutako minimoaren % 85etik nabarmen gainera), HP2ren kontzentrazio-helburua (% 44,9, eskatutako % 30eko minimoaren gainera nabarmen), eta klima-aldaketari eta biodibertsitateari egindako ekarpena (% 38,4 eta % 17,2, hurrenez hurren) betez. Alderdi horiek Programaren konfigurazioa modu erabakigarrian baldintzatu dute, klima-aldaketari zein biodibertsitateari laguntzen dieten jarduketek tipologia 2. helburu politikoaren barruan kokatzen baita funtsean.

1. helburu politikoaren barruan lehentasun bat definitu da, L1.A Trantsizio digitala eta adimentsua; I+G+B (HE1.1) eta digitalizazioaren (HE1.2) helburu espezifikoak hartzen dituenak. 2. helburu politikoaren barruan, berriz, lehentasun bat zehaztu da, L 2.A Trantsizio berdea. Horrek energia-efizientziari (HE2.1), energia berriztagarriei (HE2.2), arriskuei (HE2.4), urari (HE2.5), ekonomia zirkularrari (HE2.6) eta biodibertsitateari (HE2.7) buruzko helburu espezifikoak hartzen ditu.

2. helburu politikoaren barruan bi lehentasun zehaztu dira: 2.A lehentasuna "Trantsizio berdea", energia-efizientziari (HE2.1), arriskuei (HE2.4), urari (HE2.5) eta biodibertsitateari (HE2.7) buruzko helburu espezifikoak jasotzen dituenak; eta 2.B lehentasuna hiri-mugikortasunari buruzkoa, erregelamendu bidez ezartzen baita hiri-mugikortasunari buruzko HE2.8ak lehentasun berezia izan behar duela.

Proposatutako Programaren alternatibaren artean, zero alternatiba —ez gauzatzeari dagokiona— eta bat alternatiba —Euskadiko 2014-2020 EGEF Programan oinarritutako ikuspegi kontinuista mantentzeari dagokiona— hartu dira kontuan.

Zero alternatibak 2021-2027 aldiko arazuko inbertsio-helburuak ez betetzea ekarriko luke, eta, beraz, Euskadirako EGEFen esleipena galduko litzateke. Era berean, egindako ingurumen-ebaluaziotik ondorioztatzen den bezala, zero alternatibak ez litzuke proposatutako programak ingurumenean izango litzukeen ondorio positiboak eragingo, planteatutako programak eragin negatibo esanguratsurik ez duen testuinguru batean.

Bestalde, bat alternatibak, zero alternatibaren arrazoiketarekin bat etorritik, erregelamendu-helburuak ez betetzea ekarriko luke; izan ere, 2021-2027 aldirako erregelamenduak egungo egoera sozioekonomikora egokitzen dira, eta klima, ingurumen, gizarte eta beste hainbat arlotako politika berrien ondoriozko konpromisoak jasotzen dituzte. Era berean, proposatutako programak baino inpaktu negatibo eta inpaktu positibo gutxiago izan ditzake bat alternatibak.

Illo horretatik, Planteatutako EGEF programak egoera berriari erantzuten dio, printzipio horizontalak bilduz, garapen jasangarriari eta klimaren eta ingurumenaren arloko konpromiso eta betebeharrak berriei lagunduz; hortaz, aldi honetarako aukerarik onena bezala aurkezten da.

Beraz, espero daiteke EGEF Programak ez izatea ingurumen-inpaktu negatibo esanguratsurik oro har, eta Natura 2000 Sareari dagokionez bereziki; aitzitik eragin positibo esanguratsua espero da, Euskadiko "trantsizio berdea" bultzatuz datozen urteetan. Hala ere, EGEF Programaren esparruan garatzen diren jarduketetarako bete beharreko honako premisa hauek ezartzen dira:

- Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzko ebaluazioa gainditu duten jarduketak bakarrik sartu ahal izango dira.
- Jasotzen diren ekintzek indarrean dagoen ingurumen-araudia bete beharko dute, hala badagokio, dagokion ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa barne hartuz.
- Programan jasotako jarduketa mota bakoitzak klima-helburuak lortzen laguntzeko koefiziente bat izango du, baita ingurumen- eta biodibertsitate-helburuak lortzen laguntzeko koefiziente bat ere; horiek tresna erabilgarriak izan baitaitezke jarduketa mota bakoitzak eta programa osoak kliman eta ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak ebaluatzeko.
- Euskadiraiko identifikatutako INGURUMENAREN ALDETIK GARRANTZITSUAK DIREN EREMUAK hartuko dira kontuan, eta, bereziki, Natura 2000 Sareari buruzkoak, EGEF Programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketak hautatzeko prozeduretan kokatzeko edo garatzeko baldintzatzaile gisa. Hortaz, espazio horietan planteatzen diren jarduketei dagokionez, espazio horiek babestu eta kontserbatzera bideratutakoak lehenetsiko dira, eta, hala badagokio, garapen jasangarriari bultzada argia emango dioten jarduketak (energia garbiak, arriskuen prebentzioa...); eta, betiere, ingurumen-araudia zorrotz betez, bereziki azpiegiturak garatzea edo ingurune fisikoa zuzenean eraldatzea badakarte. Horrela, esparru horiek ez dira hain egokiak azpiegiturak garatzea edo ingurune fisikoa zuzenean eraldatzea dakarten gainerako eragiketak garatzeko; beraz, ahal den neurrian, eraldaketa horietatik babestu behar dira.
- Euskadiraiko identifikatutako garapen jasangarriako printzipioak eta irizpideak sartuko dira EGEF Programaren esparruan batera finantzatu daitezkeen eragiketak hautatzeko prozeduretan.

Azkenik, ingurumena zaintzeko programari dagokionez, adierazi behar da, ingurumen-organoak emandako irismeneko dokumentuaren arabera, adierazle-sistema bat zehaztu dela, ingurumen-alderdiak programan nola txertatu balioesten laguntzeko, bai gaur egun, bai geroko jarraipen-fasean. Funtsean, ingurumenari lotutako alderdiak jorratzen dituzten 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuetarako ezarritako adierazleak hartu dira kontuan.